

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2023ko urria / 342. zenbakia

www.oñati.eus  




100

URTE

Oñatiko tren
inauguratu zela.

1923ko irailaren 30ean jarri zen martxan




Oñatiko trenaren MENDEURRENA

Irailaren 30ean bete dira ehun urte Oñati eta San Prudentzio arteko trena inauguratu zela

Herri Egunarekin batera etorri da Oñati eta San Prudentzio-Elorregi arteko trena martxan jarri zen egunaren 100. urteurrena, eta, horregatik, beharbada, ez du izan behar adinako oihartzunik. Geuri ere, egiari zor, oharkabean pasatuko zitzagun efemeridea, Jabi Bujanda oñatiarrak trenaren inguruan osatu duen azterlana gure eskuetara iritsi izan ez balitz. Historiako gradu amaierako lan gisa idatzi du **'La historia inacabada del ferrocarril Vasco-Navarro: un tren que no debió cerrarse'** izenburua duen lana. Trenbidearen eraikuntza prozesua eta tartean izan ziren arazoez gain, Vasco-Navarro trenak gure bailaran eta, bereziki, Oñatin eragin zuen eraldaketa sozio-ekonomikoa, eta trena ixteko erabakiaren atzean egon ziren arazoak jorratu ditu Bujandak bere lan interesgarrian. Egileak berak egin digu lanaren aurrerapentxo bat.

Oñatiko trenaren mendueurrena gogoratzeko atera duten postala. Goitik behera, herriguneko, Zubillagako eta San Prudentzio-Elorregiko geltokiak agertzen dira bertan. Seilu-oroigarria ere atera dute, Jabier Erostarbek diseinatutakoa. Turismo bulegoan eskura daiteke pack-a (postala eta seilua) 5€-tan.



EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL. FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

Oñatiko trenaren ingurukoak jorratu dituzu Historiako gradu amaierako lanean. Zergatik?

Alde batetik, gure ondarea balioan jartzearen, eta, bestetik, beti gustatu izan zaidalako aitortza egitea herritar xumeei, beraiek ere egiten dutelako historia. Eta uste dut tren honek hori guztiari batzen duela.

Mutikotan makina bat ordu pasatutakoa naiz trenaren inguruan jolasean, eta beti izan dut pena edo arantza moduko bat, trena martxan ezagutu ez izana. Askotan pentsatu izan dut nolakoa ote zen 2023ko Oñati trenarekin.

'La historia inacabada del tren' du izenburua lanak. Zergatik?

Trena itxi zuten urtean, 1967an, bidaiari gehien izan zuen urtea izan zelako. Kontuan hartu behar da, gainera, Vasco-Navarro trenbidea eraikitze lanak ia 40 urtez luzatu zirela, eta 44 urtetan baino ez zela martxan egon. Datu horiek erakusten dute, nire ustez, amaitu gabeko historia bat izan zela.

Trenbidearen eraikuntzan izan ziren gorabeherak jorratzen dituzu lanaren lehen zatian. Zer azpimarratuko zenuke?


Oso obra luzea izan zela. Ia 40 urte. Enpresa britainiar bat (The Anglo Vasco Navarro Railway) hasi zen obra egiten, baina, jakina, ez da berdina trenbidea Arabako lautadan egitea edo Arlabanetik behera. Gatzaga eta Eskoriatza arteko tartean zulo handia egin zuen enpresak, porrot egiteraino, eta hainbat urtetan gelditu egon ostean, Estatuak hartu zuen bere gain trenbidea. Aldundiek ere lagundu zuten obra aurrera ateratzen.

Trenak Debagoienean eta, bereziki Oñatin eragin zuen eraldaketa azaltzen duzu lanean. Hain garrantzitsua izan al zen trena?

Bai, noski. Gaur egun esaten badugu Oñati isolatuta dagoela, pentsa nola zegoen duela ehun urte. Trenarekin batera lantegi

"Garraio publiko eta eraginkorrari dagokionez, 1967ko puntu berean gaude"

'La historia inacabada del ferrocarril vasco-navarro: un tren que nunca debió cerrarse' azterlana egin du **Jabi Bujandak**



berriak zabaldu ziren Oñatin, bailaran fabrikatutako produktuak kanpora garraiatzeko aukerak areagotu ziren, herriko gazteak Eskola Politeknikora joateko modua zuten... Eragin sozio-ekonomiko handia izan zuen, bai.

Vasco-Navarro trena bide estuko trenbideen artean erabilienetakoa zen estatu mailan, baina, hala ere, itxi

» **Autogintza sektorea sustatzeko interesa izan zen trena ixteko arrazoi nagusietako bat**

egin zuten. Zergatik ?

Arrazoi ekonomikoak egon ziren erabaki horren atzean. 1959tik aurrera Opus Dei-ko teknokratak sartu ziren gobernuan, eta bereraikitze prozesuan zegoen Europako beste herrialde asko bezala, Estatu Batuetatik zetorren modernitateari begira jarri ziren (american way of life), aurrerapenaren dogma gisa, eta fenomeno hori irudikatzen zuen (→)

objektua zera zen: automobila. Askatasun pertsonalaren irudia. Beraz, ideia hori familia guztietan txertatzen joateko, lekua kendu behar zitzaien etsaiei, besteak beste, trenari.

Ez da ahaztu behar, gainera, garai hartan sindikatuak debekatuta zeudela Espainian, eta horrek bidea zabaldu eta erraztu zien autogintzako enpresei.

Baina egia da trena defizitariora zela, ezta?

Bai, hala da, baina gauza bat dira datuak, eta beste gauza bat, ea nahita egiten ote den defizit horren areagotzea. Jakina, ez badituzu behar diren inbertsioak egiten, defizit hori areagotuz joango da, zure helburua lortu arte.

Trenaren itxierak haserrea eragin zuen herritarren artean, eta udalak saiatu ziren berriz ere martxan jartzen, ezta?.

Bai, jendeak ez zuen ulertzen nola itxi zitekeen trena, eta, bai hainbat udalen artean CAFEMSA (Compañía Arrendataria del Ferrocarril Escoriaza-Mecolalde Sociedad Anónima) eratu zuten trenbidea kudeatu eta gastuak bere gain hartzeko asmoz, eta hiru hilabeteko luzapena lortu zuten, baina alperrik izan zen; laguntza eskatu zioten foru aldundiari eta sortu berria zen Caja Laboral-i, baina ez zeukaten likidezia nahikorik. Madrilek ere ez zuen askorik lagundu.

Eta Oñati isolatuta gelditu zen, berriz ere.

Hala da, eta, tamalez, 1967ko leku berean gaude, konpondu bariko arazo batekin, garraio publikoari dagokionez. Gizarte-



▲ Garai hartako lerroburu hauek erakusten duten moduan, trenaren itxierak kezka, haserrea eta ondoeza eragin zuten herritarren artean. Udalek trena bizirik mantentzeko egindako ahaleginaren berri ere ematen dute. ETA erakundeak berak ere itxieraren aurkako komunikatu bat kaleratu zuen



Trenaren mendeurrena gogoratzeko atera duten seilua

MEDEURRENEKO EKITALDIAK

Jabi Bujandaren ekimenez eta udaleko turismo sailaren laguntzarekin trenaren mendeurrena gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatuko dira datozen asteetan. Hala, urriaren amaieran erakusketa bat egingo da kultur etxean trenaren inguruko hainbat agiri, dokumentu eta objektuekin, eta abenduaren 12an Azepeitiko Trenaren museoko zuzendari Juanjo Olaizolaren hitzaldia egongo da. Horiez gain, bizikleta martxa bat ere egin asmo da trenaren ibilbidean zehar. Trenaren postal eta seilu oroigarriak turismo bulegoan eskura daitezke (5€/pack-a).

aren motorizazioa bultzatu zen. Vasco-Navarro itxtearekin batera herrien arteko garraio zerbitzua La Vergaresa-ri esleitu zitzaion, gerora PESA bihurtu zena, eta egun Avanza dena. Eta ikusi besterik ez dago bailaran eta, batez ere, Oñatin, garraio publikoarekin ditugun arazoak: maiztasun eskasak, transbordoak egin beharra, atzerapenak... Gauza batzuetan hobeto zeuden 1960ko hamarkadan, eta, bienbitartean gure inguruak autoz josita, eta, gehienetan auto bakoitzean bidaiari bakarra.

Azken kapituluan tranbiaren aldeko aldarria egiten duzu.

Lanaren parte zen, etorkizunera begirako proposamen bat egin beharra neukan, eta estatu mailako eredu ezberdinak aztertu ostean Zaragozakoa interesgarria iruditu zitzaidan. Kablerik gabe dabilen tranbia da, ultra-kondentsadore batzuen bidez kargatzen dena, bidaiariak sartu eta irtetzen diren bitartean. Nire ustez interesgarria litzateke eskualdeko herriak eta industria gune nagusiak lotuko litzuzkeen era honetako garraiobide publiko bat Mankomunitateak kudeatuta. Egia esan, zaila ikusten dut gaur egun halako zerbaite egitea, gure mentalitatea oso motorizatuta dagoelako, baina batek daki, agian proba egitea izan liteke.

Lana argitaratzeko asmorik ba al duzu?

Ez, kopia batzuk utzi ditut turismo bulegoan eta udal liburutegian, irakurri nahi duenarentzat. Dena den, urritik abendura bitartean hainbat ekitaldi antolatuko ditugu udalarekin batera, trenaren 100. urteurrena gogoratzeko. ■



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net  



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

“BEHAR DUZUN ZUNTZAK OPARIA DAKAR”

Zuntza+mugikor linea
kontratatz gero, bi **opari**
hauen artean bat aukeratu
dezakezu:

ERRATZ XURGAGAILUA

AIRE BIDEZKO FRIJIGAILUA

**SOILIK URRIAN
EGINDAKO
KONTRATAZIOETARAKO**



PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:

LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA

TLF: 943 090 600



Opari-promoziua 2023ko urrian 1etik 31era, edo stocka amaitu arte, LIZKER Informatika dendan MÁSMÓVIL-eko edozein mugikor + zuntza tarifa kontratatuz. Oparia, zuntza instalatutokoa eskatu daiteke. Kontsultatu gainerako baldintzak LIZKER Informatika dendan.

MÁSMÓVIL
AHORRA, SIN MÁS



Eltziako Koordinazio Taldeko eta udaleko Parte Hartzea eta Garapen Komunitarioa saileko ordezkariak, dinamika berriaren aurkezpenean

Dinamika berria jarri dute abian Eltzian komunitatea sendotzeko asmoz

> **Dinamizatzaile** bat hasi da lanean, eltzekideen arteko harremanak bideratzeko, eta **komunikazio** estrategia bat diseinatzen ere hasi dira

> **Udalak** begi onez ikusi du Eltzekideen egitasmoa, eta dinamika berriari babesa emateko **dirulaguntza** bat jaso du lankidetzaz hitzarmenean

La hamar urte igaro dira Eltzia (Herri Sormenaren Etxia) abian jarri zenetik. Urte hauetan zehar unean uneko errealitatera eta beharretara egokitzuz joan den proiektua da eta, gaur egun, 22 eragilek —kultura arlokoak nahiz herri mugimenduak— dihardute bertan, eta kontuan hartu behar da, eragile horietako batek, *Sai Zoi Bele* musika kolektiboak, esaterako, 30 bat talde biltzen dituela bere baitan.

Garbi dago, beraz, osasuntsu eta oso bizirik dagoen proiektua dela Eltzia. Baina, hala ere,

bertan diharduten zenbait talde eta eragilek eltzekideen arteko hartu-eman handiagoa botatzen dute faltan. Alegia, proiektuak hasieran izan zuen komunitate edo kolektibotasun zentzua pitin bat itzali egin dela uste dute, eta, horregatik, dinamika berria jarri dute abian, eragile ezberdinen arteko harremanak sendotu, hauspotu eta Eltzia biziberritzeko asmoz. "Eltziaren sorreran parte hartu zuten taldeek garbi zuten zer zen Eltzia, zein zen filosofia,

eta barneratuta zuten komunitate sena; baina, denborarekin, errelebo bat egon da, talde batzuk desegin dira eta beste batzuk sortu, jende berria batu da eta, beharbada, ez dugu asmatu filosofia hori egoki transmititzen", dio Josu Zubiak, Eltziako Koordinazio Taldeko kideak.

"Ezin da ahaztu", gaineratu du Zubiak, "hau tamaina handiko proiektu bat dela, izaera eta dinamika oso ezberdinak dituzten taldeak biltzen dituela, eta hori zama bat dela, neurri batean; baina, era berean, aukera oso ona ere bada, potentzial handia dagoelako Eltzian, eta gauzak ondo egiten baditugu, emango du bere zukua. Baina, horretarako, beharrezkoa da Eltziako erabiltzaileak proiektu komun bateko kide sentitzea, elkarrean elkarre bat garela, eltzekideak garela".

DINAMIKA BERRIA

Eltzekideen arteko harremana sendotu eta sinergiak baliatzeko

JOSU ZUBIA

Eltziako koordinazio taldea

"Eltziako erabiltzaileak proiektu komun bateko kide garela sentitu behar dugu, elkarteen elkarrekin bat osatzen dugula, eltzekideak garela, alegia"

asmoz, dinamika berria jarri dute abian Eltzian, kultura eta sormena bitarteko hartuta.

Zehazki, hiru egitasmo jarri dituzte martxan. Alde batetik, TOPA-GUNEA izendatu dutena, eta zera da: asteazken arratsaldeetan (hilean behin, gutxi gora behera) ekitaldi ezberdinak antolatuko dituzte Topagunean. Lantaldetan antolatuta, eltzekide ezberdinen artean antolatutako ekitaldiak izango dira. Batzuetan kanpoko sortzaileak gonbidatuko dituzte eta, beste batzuetan eltzekideen sorkuntza lanak aurkezteko baliatuko dute. Urriaren 18rako iragarri dute aurreneko ekitaldia (*Muare* taldearen kontzertua).

ELTZIA EGUNA da bigarren egitasmoa. Hainbat urteko etenaren ostean berreskuratu egingo dute eta, aurtengoa, urriaren 28an izango da. Festa giroko eguna izango da; goiz partean ate irekiak, eguerdian bazkari herrikoia, eta ondoren askotariko ekintzak (dantzak, bertsoak, musika...). Eltzekideak elkarrekin egoteko eta biziberritze prozesu honi bultzada bat emateko aukera ona izango da.

KOMUNIKAZIO estrategia da hirugarren egitasmoa. Azken urteotan egon den hutsene nagusietako bat izan omen da, eta, beraz, estrategia bat lantzen ari dira, bai kanpora begira, baina, batez ere, barne komunikazioari begira, eltzekideen arteko eza-gutza eta harremana hobetzeko asmoz, beti ere.

Egitasmo horiek bideratzeko bi pertsona kontratatu ditu Eltzian: Sara Arregi, dinamizatzaile lanak egiteko eltzekideen artean, eta Danel Teran, komunikazio estra-

ANIK ZUBIZARRETA

Partaidetzako zinegotzia

"Hainbeste talde biltzen dituen proiektu bat kudeatzea, ez da erraza. Baina Eltzian potentzial izugarria du, eta gure babesa ere bai"

tegia diseinatzeko.

UDALAREN BABESA

Udalak oso begi onez ikusi du Eltzian jaso duen egitasmoa eta, hala, hurrengo lau urteetarako berritu duten lankidetzaz hitzarmenean, azpi-hitzarmen bat jaso dute, dirulaguntza bat aurreikusten duena Eltzian biziberritzeko dinamika berria aurrera eramaten laguntzeko, eta urte urte berrituko dena.

"Gure sailean zutabe den proiektu bat da Eltzia", adierazi du Anik Zubizarretak, udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioa saileko zinegotziak, "gure helburu guztiak —komunitatearen garapena, gizarte eragileen arteko harreman sareak, eragileen autogestioa, belaunaldi arteko harremana...— biltzen dituelako Eltzian eta, beraz, gure babesa izango du".

"Normala den moduan", gaineratu du Zubizarretak, "elkarrekin guztiak izaten dituzte gorabeherak beren ibilbidean zehar, eta hainbeste elkarrekin biltzen dituen Eltzian bezalako egitasmo bat egoki koordinatzea ez da erraza, baina garbi daukagu potentzial handiko proiektua dela Eltzian eta, horregatik, eskuzabalik eta ilusio handiz hartu dugu. Ez dugu ahaztu behar, Eltzian badaukala beste helburu inportante bat, itzulera sozialarena, eta uste dut egitasmo honek lagunduko duela horretan, herritarrek hobeto eza-gutu dezaten zer den Eltzia eta zer egiten den bertan".

Eltziako Koordinazio Taldeko veteranoetako bat da Marilo Unzurrunzaga, eta gazteengan lanerako gogoia eta ilusio handia ikusten duela adierazi du. ■

'TOPA-GUNEA' ekimena

Muare taldearen kontzertuak irekiko du 'Topa-Gunea' ekimena, urriaren 18an

Eltzia biziberritzea helburu duen dinamika baten ekitaldi ezberdinak antolatuko dituzte bertako Topagunean. Urtea amaitu bitartean bost ekitaldi antolatzeko asmoa dute, eta lehenengoa urriaren 18an (20:00). Pop-folk elektronikoa egiten duen *Muare* (Eli Beraza eta Maddi Gerriko) taldearen kontzertua antolatu dute estreinako ekitaldirako. Azaroan beste bi izango dira Topagunean eta abenduan beste bat, baina ez dira beti kontzertuak izango eta, ahal dela, Eltzian bertako taldeen sormen lanak erakusteko ahalegina egingo da.



ELTZIA EGUNA

Urriaren 28an ospatuko da Eltzian Eguna



Oraindik zehazteke dago Eltzian Eguneko egitaraua, baina aurreratzeko moduan gaude urriaren 28an izango dela. Egun osoko jaia izango da. Goiz partean ate-irekiak izango dira, Eltzian instalazioak eta bertan diharduten talde eta eragile ezberdinen jarduna bertatik bertara ikusi eta ezagutu ahal izateko. Eguerdian bazkaria egongo da, eltzekide eta nahi duten herritar guztientzat, eta arratsalde-iluntze partean hainbat ekintza egongo dira (musika, bertsoak, dantzak...).

22 ELTZEKIDE

Gaur egun 22 eragile edo elkarrekin dihardute Eltzian: Ilunpetan argazki taldea, Irazan antzerki gunea, Sare, Ortuzabala, Txinparta bertso eskola, Lagun Leku, Joskintza, Yoga-Lagun Leu, Artez Hazten, Zazpi Udaberri, Zai Zoi Bele musika kolektiboa (*), Zizelkariak, Oñatz dantza taldea, Algaraz ikuskizun elkarrekin, Margo taldea, IMME (Emakumeak eta integrazioa), Saharatarren elkarrekin, Dantza librea, Hotz Oñati, Yoga Devi, Debagoieneko Antzerki Plataforma, Dantza Flamenkoa. (* Musika kolektiboak 30 bat talde biltzen ditu).

OÑATIKO ESPERIENTZIEN GELA

ikasturte berriari ekiteko prest

Marcelo Muñoz ekonomilariaren '**China ha vuelto para quedarse**' hitzaldiarekin hasiko da, urriaren 11n. Hurrengo hizlaria Silvia Zuloaga medikua izango da '**Comer bien: salud, bienestar y calidad de vida**' hitzaldiarekin, urriaren 25ean.



Marcelo Muñoz eta Silvia Zuloaga izango dira urrian antolatu diren bi hitzaldietako hizlariak

Udaleko Hezkuntza sailak OÑATIKO ESPERIENTZIEN GELA jarriko du abian aurten ere, Goienagusi elkartearekin elkarlanean, 55 urtetik gorako herritar guztiei zuzenduta. Ezagutza esparruak zabaltzea, kultura maila aberastea, aisialdiaz gozatzea, harreman berriak bideratzea eta gizarte gaiekiko jarrera aktiboa sustatzea da ekimen honen helburua, eta horretarako hainbat ekintza (hitzaldiak, tailerrak, irteerak, bisita gidatuak...) antolatuko dira urtean zehar.

Udalarekin sinatuko duen lankidetzaren arabera, Goienagusik hilean bi ekitaldi antolatuko ditu Oñatin kurtsoan zehar, eta oñatiar guztientzat irekiak eta dohainik izango dira, Goienagusiko bazkide izan ala ez. Aldiz, Arrasaten eta Bergaran antolatuko diren ekintzetan parte hartu ahal izateko, Goienagusiko bazkide izan behar da. (Informazioa: <https://goienagusi.eus/> | goienagusi@gmail.com).

Oñatiko Esperientzien Gelaren 2023/2024 kurtsoa hasteko bi hitzordu interesgarri antolatu dira. Urriaren 11n Txinari buruzko hitzaldia emango du ekialdeko erraldoia ondo baino hobeto ezagutzen duen Marcelo Muñozek (ikusi ondoko orria). Urriaren 25ean elikadurari eta osasunari buruzko hitzaldi praktikoa eskainiko du Silvia Zuloaga medikuak. Ohi bezala, Santa Ana aretoan izango dira hitzaldiak, goizeko 10:00etan, eta ordu erdi lehenago kafetxea hartzeko aukera egongo da Santa Ana aretoko sarreran bertan.

GOIENAGUSIK antolatu dituen beste ekintza batzuk

▪ **HITZALDIA** (ARRASATEN)
Urriak 9 (Kulturate, 10:00)
**'Haurduntze subrogatuari
buruzko ikuspegia'** Itziar
Alkorta, EHUko irakaslea

▪ **HITZALDIA** (ARRASATEN)
Urriak 16 (10:00)
**'Otálora: linaje, mayoralgo,
honor'** Iñaki Urreta, irakasle
erretiratu. Historialaria.

▪ **HITZALDIA** (BERGARAN)
Urriak 18 (Seminarixoa, 10:00)
**'Testamentua ondo egiteko
azalpen praktikoak'**
María Longarte, Bergarako
notarioa.

▪ **HITZALDIA** (ARRASATEN)
Urriak 23 (10:00)
'Bitasunak' Lourdes
Oñaederra, hizkuntzalari

▪ **HITZALDIA** (ARRASATEN)
Urriak 30 (10:00)
**'Europa en la encrucija
y su futuro político'**
Juanjo Alvarez, Zuzenbidean
doktorea

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

"XXI. gizaldia Txinaren gizaldia da, zalantza barik"

MARCELO MUÑOZ Ekonomilaria eta Filosofoa

Marcelo Muñozen (Jaraíz de la Vera -Cáceres-, 1934) '*China ha vuelto para quedarse*' hitzaldiak emango dio hasiera Oñatiko Esperientzien Gelaren 2023/2024 ikasturteari. Txinan bulego komertzial bat ireki zuen aurreneko espainiarra izan zen, 1978an, eta 45 urtez jardun du zubiak eraikitzen Espainia eta Txina artean, hemengo enpresa askori merkatu txinatarrean sartzeko bidea errazten. Bertatik bertara ikusi du Txinak lau hamarkada hauetan bizi izan duen garapen izugarria; "munduko 120. potentzia zen hara iritsi nintzenean, eta bigarrena da egun. Gure seme-alaben etorkizunaz kezkatzen den pertsona orok izan beharko luke interesa Txinaren inguruan", dio Extremadurako enpresari eta idazleak.



Zergatik interesatu behar zaigu Txinari buruzko hitzaldi bat?

Munduko bigarren potentzia delako eta urte gutxiren buruan lehena izango delako, bai ekonomian eta baita teknologian ere. Beraz, munduko edozein herritarrek izan beharko luke jakin-nahia Txinaren inguruan, interes politiko minimo bat baldin badauka eta seme-alaben etorkizunaren inguruko kezka baldin badauka. Txinak zeresan handia izango du XXI. mendean, gure seme-alaben gizaldian, eta hortxe dago interesa: jakitea zein mundutan biziko diren gure ondorengoak.

Ni Txinara iritsi nintzenean, duela 45 urte, munduko 120. potentzia ekonomikoa zen, eta lau hamarkadatan 2.a izatera iritsi da. Nola lortu dute? Zerbait egingo zuten ondo? Ni eboluzio edo garapen horren lekuko izan naiz, eta nire ikuspuntua azalduko dut.

'China ha vuelto para quedarse' da Oñatin emango duzun hitzaldiaren izenburua. Nondik itzuli da Txina?

Ratio ekonomiko modernoekin egin den ikerketa baten arabera, Txina mundu mailako lehen potentzia ekonomikoa izan zen bi mila urtez. Augustoren garaian Erromatar inperioaren barne produktu gordina mundu mailakoaren

%8 zen, gutxi gora behera, eta Txinarena %21ekoa.

Zergatik joan zen? Ez. Txina ez zen joan. Mendebaldeko herrialdeek inbaditu zuten, inperioa gainbeheran zegoela baliatuz, eta miserian hondoratu zuten herrialdea, hainbeste, ze Mao agintera iritsi zen urtean, 1949an, mundu mailan biztanleko errentarik txikiena zuen herrialdea zen Txina.

”

Ni Txinara iritsi nintzenean, duela 45 urte, munduko 120. potentzia zen, eta lau hamarkadatan 2.a izatera iritsi da. NOLA lortu dute? Zerbait egingo zuten ondo, ezta?

1978an iritsi zinen zu Txinara. Egoera oso bestelakoa zen orduan. Txina mundu mailako 120. potentzia zen. Zerk eraman zintuen bertara?

Diktaduratik irten berriak ginen eta Espainiak atzerrian zituen harreman komertzialak hutsaren hurrengoak ziren. Bestalde, Txina atek irekitzen hasi zen Deng Xiaoping-en eskutik, eta, beraz, apustua egitea erabaki genuen. Erronka zaila zen, oso, baina asmatu genuen, edo zortea izan genuen.

Txinan bulegoa izan zuen lehen enpresa espainiarra (Incoteco), eta Europa mailako lehenengoetakoa izan ginen. Espainia eta Txinaren arteko harreman komertzialak bideratzen lagundu genuen, eta orduz geroztik ehunka enpresari lagundu diegu merkatu txinatarrean barneratzen.

Lau hamarkada hauetan ikusi ahal izan dut nola garatu den Txina, nola hobetu den txinatarren bizi-kalitatea, nola hazi diren askatasunean —hemen baloratzen ez dena—, nola hasi ziren txinatar gazteak unibertsitatera masiboki joaten —Txina da, proportzioan, gazte unibertsitario gehien duen herrialdea, Estatu Batuak eta Europaren gainetik—...

Nazio Batuen Erakundeak onartzen du Txinan 800 milioi pertsona atera direla pobreziatik urte hauetan zehar.

Kontuan hartzeko datua da, ezta? Mundu osoko delegazioak iristen dira hara, galdera berarekin: nola egiten duzue? Baina Europan ez zaigu interesatzen. Gure sistema askoz hobea dela uste dugu, ederragoak, aberatsagoak garela uste dugu, eta ez dugu nahi inork leziorik ematerik ezertaz.

Bada, nik uste dut merezi duela Txinak bizi izan duen eboluzio ikaragarri hori ezagutzera ematea eta horretan saiatzen naiz 'Catedra China' elkartearen bidez

eta liburu nahiz hitzaldien bidez.

Azkenaldian, baina, Txinako ekonomian ere geldotze edo dezelerazio zantzuak daudela diote hainbat adituk. Zein da zure irakurketa?

Azken urteotan bi pandemia jasan ditugu: osasun mailakoa eta Ukrainako gerra, eta horrek eragina izan du mundu mailako ekonomian, baita Txinan ere. Baina, hala ere, Munduko Diru Funtzaren arabera Txinako ekonomia %5,5 "bakarrik" haziko da. Nahiko luke mundu guztiak %5,5 hazi aurtentzen.

Zure idatzi eta hitzaldietan behin eta berriz aldarrikatzen duzu Europa eta Txinaren arteko harremanak estutzea, Estatu Batuek proposatzen duten konfrontazio egoera alde batera utzita.

Halaxe da, bai. Europar bezala lotsa ematen dit Estatu Batuekiko politika autonomoa ez izateak. Europar Batasunak Txinarekin hitz egiteko obligazioa dauka, Estatu Batuek baino gehiago. Zergatik egiten dio uko Europak 'Zetaren Bide Berria' izenez ezagutzen den makro-proiektuan parte hartzeari? Txina, munduko 152 herrialde eta 15 banku handirekin batera mila milioi dolar inbertitzen ari da urtean, 2013tik hona, konektagarritasun globala lortu nahi duten azpiegiturak eraikiz (trenbideak, errepideak, itsas bideak...). Zergatik ez dago hor Europa? Estatu Batuek ez dutelako nahi. Tamalgarria.

Zein da Txinaren hazkundearen gakoa?

Bere politika. Txinako sistema ekonomikoa ez da asko bereizten sozialdemokraziaren sistematik. Sozialdemokrazia Europako ekonomiaren oinarrian egon zen bigarren mundu gerraren ondoren, baina 80-ko hamarkadako iraultza kontserbadorearekin (Reagan, Thatcher...) neoliberalismoa nagusitu zen, eta Txinak ez du bide hori jarraitu. Txinatar ekonomiaren %73a pribatua da —92 milioi enpresa pribatu daude—, eta estatuak botere ekonomikoaren zati bat (%30 baino gutxiago) gordetzen du beretzat, merkatua erregulatu ahal izateko. Erregulaziorik gabeko merkatuak neoliberalismoaren hondamendiak dakartza, herrialde eta klaseen arteko desberdintasunak areagotuz, besteak beste.

Ekonomikoki eta teknologia mailan punta-puntan dago Txina, baina demokrazia eta eskubideei dagokionez, bada zer hobetua, ezta?

Washingtonen eta Google-ek egunero errepikatzen diguten zerbait da, baina ni han bizi izan naizenean edozeinekin eta edozertaz berba egin izan dut, askatasun osoz. Ez dagoela askatasunik Txinan? Eztabaida dezagun ereduak alderatuz.

Eskubideak ez dira soilik politikoak; Nazio Batuen Eskubideen Kartak 143 eskubide jasotzen ditu, eta, adibidez, Txina da muturreko pobrezia errotik atera duen herrialde bakarra. Estatu Batuetan %11koa da. Ze eskubidez ari gara? Harvard-eko unibertsitateak egindako ikerketa baten arabera, txinatarren asebetetze maila gobernuarekiko %83koa da, altuena munduan.

Baina hor daude Hong Kong-eko egoera edo Uigur etniakoen aurkako errepresioa?

Uigurrak musulmanak dira, Xinjiang-eko biztanleriaren erdia, eta hor yihadismo

ez indarrez.

Ez duzu gerrarako arriskurik ikusten? Estatu Batuek nahi badute, bai. Txinak ez du nahi.

Uste duzu Txina mehatxua izan daitekeela nazioarteko sistema edo ordenarentzat?

Ze ordenari buruz ari gara? Munduko biztanleriaren %16 baino ordezkatzan ez duen Mendebaldeak ezarri nahi duen fikziozko ordenari buruz?

Txinak ez du konfrontaziorik nahi. Alderantziz, Txina izugarrizko itxaropena da nazioarteko sistemarentzat. Hala ikusten dut nik. Gure seme-alaba eta bilobak mundu hobexego baten bizi ahal izango dira, hein handi batean Txinari esker. Hori da nire pronostikoa, eta nire liburuan azaltzen dut, datuekin.

Zer da txinatarrengandik gehien miren duzuna?

Beraien komunitate sena. Pandemiaren oso garbi ikusi zen; oso neurri zorrotzak onartu zituzten, kolektiboarentzat ona zela uste zutelako. Komunitatearekiko sen horrek sustrai sakonak ditu Konfuzionismoan, eta horixe da Txinatarren politikaren oinarrian egon den sistema etiko eta filosofikoa 2.500 urtetan zehar.

Eta zein dira Txinaren erroka nagusiak?

Klima aldaketa. Garbi daukate arazo hori konpondu ezean, hondamendia datorrela. Serio hartu dute gaia, eta gaur egun Txina gehiago inbertitzen ari da klima aldaketari aurre egiteko neurrietan, Estatu Batuak eta Europa batera baino. Helburua da, 2060 urterako erabateko karbonogabetzea lortzea.

Oñatiko Esperientzia Gelak antolatu du zure hitzaldia, baina, esan didazunez, jende gaztea ere ikusi nahi zenuke bertan.

Bai, noski, gazteei eragingo dielako munduak biziko duen aldaketa positiboa. Ez da berehalako aldaketa izango, baina bizi egingo dute, eta komeni zaie jakitea nondik nora joango den XXI. gizaldia. Jendeak nahi duen gai guztiei buruz hitz egin eta eztabaidatzeko aukera izango dugu bertan. ■

Nazio Batuen Erakundearen arabera Txina da muturreko pobrezia errotik atera duen herrialde bakarra. Estatu Batuetan %11koa da.

terrorista infiltratu da Afganistanetik eta Pakistanetik. Eta Txinako gobernu horri aurre egiten ari da. Nola? Eskolak ematen dizkiete yihadismoa kaltegarria dela erakusteko. Hori da beraien estrategia terrorismoari aurre egiteko. Giza eskubideen kontrakoa dela? Hobeak al dira Mendebaldeak antolatzen dituen gerrateak?

Hong Kong-eko penintsula Txinako lurraldearen parte da. Britainiar kolonia zenean, han bizi izan nintzen, eta ez zegoen inolako eskubiderik. Eta, orain, Txinako subiranotasunaren pean, mendebaldeko demokrazia liberala aplikatzea eskatzen diegu, eta ez dute nahi.

Gauza bera gertatzen ari da Taiwanen. Separatistak Estatu Batuen finantziarioa jasotzen ari dira, baina Taiwan beti izan da txinatarra, Japoniaren kolonia izan zen garaian izan ezik, eta Txinak modu paketsuan berreskuratu nahi du Taiwan,



Iaz Auzokon parte hartu zutenetako batzuk

AUZOKO

Jatorri ezberdinetako pertsonak **euskarara hurbiltzea** helburu duen Auzoko programa martxan jarriko da aurten ere. **Euskal hiztunak** ere beharrezkoak dira etorkinei euskararako bidea egiten laguntzeko.

Oñatira eta Euskal Herrira, oro har, gero eta etorkin gehiago iristen ari den garai honetan berebiziko garrantzia dute AUZOKO bezalako egitasmoek integrazioaren eta euskararen ikuspuntutik. Izan ere, pertsona horiei euskarara hurbiltzeko bidea egiten laguntzea da Auzoko-ren helburua; jatorri ezberdinetako pertsonak euskarara gerturatzea eta, bide batez, herrian integratzen laguntzea.

AUZOKOren DINAMIKA

Bi hanka edo figura ditu AUZOKO programak: batetik **Auzokideak**, euskarara hurbildu nahi duten herritarrek; eta, bestetik, **Auzotarrak**, euskal hiztunak, etorkinei euskararako bidea egiten laguntzen dieten herritarrek.

Astean behien elkartzen dira guztiak, Eltzian, eta programako dinamizatzaileak (Miren Zubia) prestatutako ekintzen bidez egunerokoan erabiltzen diren hitzak eta elkarrizketa motzak lantzen dituzte. Ekintza ludikoak izaten dira normalean (mahai-jolasak, tailerrak, kantak...),

eta, tarteka, herriko beste eragile batzuen (Oñatz, Natur Eskola, Bertso Eskola, talde feministak...) ekintzetan parte hartzen dute, herriko errealitatea ezagutu eta zubiak eraikitzen laguntzeko.

Esan beharrik ere ez dago, euskal hiztunen parte hartzea ere oso garrantzitsua dela Auzokon. Ez du dedikazio handirik eskatzen, eta euskarara hurbiltzeko ahalegina egin nahi duten pertsonentzat oso garrantzitsua da harreman sareak zabaltea herritarren artean. Gainera, euskal hiztunentzat ere aberasgarria da Auzoko, jatorri, kultura eta hizkuntza ezberdineko jendea ezagutzeko aukera ematen baitu. Beraz, animatu! Harremanetarako: **on-tiauzoko@gmail.com / 688 651 205**.

AURKEZPEN EKITALDIA

Urriaren 18an egingo da Eltzian (19:00) 2023/24 kurtsoko Auzoko programaren aurkezpena. Luntx txiki bat eta elkar ezagutzeko dinamika bat egingo da. Animatu!

AUZOKOko partaideek esanak

» Saioak oso dinamikoak dira, motibagarriak. Jokoen bidez hurbiltzen gara euskarara. Dibertigarria da

» Jatorri ezberdinetako pertsona interesgarriak eta jatorrak ezagutu ditut. Sozializatzen hasteko modu bat da, eta hori zaila izaten da herrialde eta hizkuntza berri batekin topo egiten duzunean

» Beste kultura eta hizkuntza batzuetara hurbiltzeko aukera ematen du

» Ateak irekitzeko balio du. Bertakoen hizkuntza ikasten baduzu, aukera gehiago duzu jende gehiagorekin egoteko, harreman sarea zabalteko eta, azken batean, herrian integratzeko

» Euskarara hurbiltzeko eta jende berria ezagutzeko aukera ederra da"

» Niretzat herriko atea da Auzoko"

Ikusi iazko AUZOKOko partaideerkin grabatutako bideoa QRan.

Informazio

gehiago:

@auzokoonati



**Oñabike**

oñabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

GANADU LEHIAKETAK

Arrazaren hobekuntzan egindako aurrerapenaren erakusle



Juan Jose eta Joakim
Egaña aita-emeak
Gernikako lehiaketan

Piriniar arrazako behien Ordizia, Elizondo eta Gernikako lehiaketetan parte hartu dute aurten ere Dolaetxe baserrikoek

Iraila hilabete berezia izan ohi da Dolaetxe baserria. Ohi baino lan eta mugimendu gehiago izaten da, orduantxe jokatzeko baitira Pirenaika arrazako ganadu lehiaketa nagusiak: Ordiziako Euskal Jaiaren bueltan ospatzen den herrialde mailakoa aurrena; Elizondon egin ohi den nazional mailako lehiaketa-enkantea gero, eta urriko lehen asteleheneko azokarekin batera Gernikan egiten den Euskadiko txapeleta azkenik.

Juan Jose eta Valentin anaiek 25 urte daramate lehiaketetan parte hartzen. "Lehenago ere bazen ohitura gure etxean", dio Juan Josek. "Gogoan dut, mutikoa nintzela, gure aita zenak ere ekartzen zituela behiak kalera, Errosarixo bixamon egunean egiten zen herri mailako ganadu lehiaketara. Gero, baserriko kargu egin ginenean, anaia eta biok 1998an joan ginen lehenengo aldiz Ordiziarra, eta orduz geroztik hortxe jarraitzen dugu".

"Bere lana dauka lehiaketara joateak —behiak garraiatu, garbitu, aurretik sokan ibiltzen ohitu behar dira...—, eta kezka edo estres puntu bat ere izaten dugu —ganadua zela ibiliko den...—, baina familiakoen babesa eta

**Herriko
txoko guztietara
iritsi nahi duzu?**

jarri zure iragarkia aldizkarian

publi@onati.eus

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





◀ Bost urte dituen 'CR-7' idisko ikusgarria da une honetan Dolaetxeko aziendako izarra. Hainbat sari eskuratu ditu azken urteotan: 1. saria Elizondon 2019 eta 2022an, eta 2.a Gernikan, bere adinekoen artean. Mila kilo inguru ditu eta etxeko behiak emaltzeko erabiltzen dute.

animoa ere badaukagu, eta gustora joaten gara, egun pasa ederra egiteko asmoz, beti ere", gaineratu du Juan Josek. "Elizondokoa eta Gerniakoa bi egunekoak izaten dira, eta lasaiago ibiltzen gara. Bertan lo egin ohi dugu, eta festa moduko bat izaten da guretzat. Ordiziakoa egun bakarrekoa da, eta hor beteago ibiltzen gara".

Goizean goiz etxetik abiatu eta azoka lekura iritsi orduko behiei garbitu eder bat ematea izaten da aurreneko lana, aurreko egunetan etxean txukundu arren, bidean zikindu egiten direlako. Gero, goiz erdi aldera, desfilea hasten da, ikusle eta epaileen aurrean. "Ganaduaren adinaren araberrako sail ezberdinak bereizten dira; 12-18 hilabetekoekin hasi eta 9 urtetik aurrerakoekin amaitu. Ordizian, adibidez, 7 sail egoten dira eta gu saiatzen gara sail bakoitzeko buru bana eramaten", azaldu digu Juan Josek. Ordizian urruxa edo behi-



"Guk adar bariko behien aldeko apustua egin genuen, maneiurako erosoagoa delako, baina horrek bere peajea dauka lehiaketetan, adarrek asko janzen dituztelako behiak"

JUAN JOSE EGAÑA DOLAETXE



▲ Ezkerrean, Joakim Egaña, behia gidatzen Ordiziako lehiaketan. Eskuman, Valentin eta Juan Jose anaiak eta honen seme Joakim, jasotako sariarekin

emeen lehiaketa soilik egiten da, baina Elizondon arrak ere puntuatzen dira, eta Gernikan lote edo ganadutegi onenarentzako saria ere egoten da, beste sari berezi batzuen artean.

Elizondon 400dik gora buru aurkezten dira lehiaketara; Gernikakoan 100dik gora, eta Ordizian gutxixeago. (→)

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI



SARIAK

Abelburuen hezurdura edo tamaina, morfologia —ipurgai naren garaiera eta zabalera, hanken formak...—, okelatarako gaitasuna eta arrazeko ezaugarriak —zurmitz edo muturraren kolorea, kaskoena, azalarena—, puntuatzen dira, besteak beste.

Aurten, adibidez, Dolaetxe elkarteak 2. sari bat jaso zuen Ordizian, baina lehenengo sariak ere irabazi izan dituzte, baita Elizondon ere, eta Gernikatik ere ez dira esku-hutsik etorri izan. "Guk *handicap* txiki bat dugu", azaldu digu Juan Josek, "gure behiak adar bariak direlako. Ukuilua berritu genuenean adar barikoen aldeko apustua egin genuen, maneiruako erosoagoa delako, eta horrela jarraitzen dugu, baina horrek penalizatu egiten gaitu lehiaketetan, adarrek asko janzten duelako behia. Baina, hala ere, jaso izan ditugu zenbait sari, eta pozgarria izaten da. Azkenaldian idiskoak eman dizkigu hainbat poz (lehenengo sariak Elizondon, bigarrena Gernikan...)".

Dena den, sariak pozgarriak izan arren, Dolaetxen ez diote aparteko garrantzirik ematen. "Ez dugu horregatik burua galtzen. Sariak pozik hartzen dira, jakina, baina aurretik beste gauza asko daude baloratu beharrekoak halako egunetan: geure artean ondo ibiltzea, inork minik ez hartzea, eta ganadua joandako moduan etxeratzea. Sariari eta alde ekonomikoari begira egongo bagina, ez ginateke joango. Ez du merezi. Baina gustatu egiten zaigu, eta Elizondora asteburu pasa familiarekin joatea, adibidez, nire oporren zatitxo bat izaten da, eta gustura joaten gara".

PIRENAIKA ARRAZA

Baserriaren ardura hartu zute-nean okelatarako behien aldeko apustua egin zuten Juan Jose eta Valentin anaiek, eta, zehazki, Piriniar arrazako behien aldekoa. "Kasualitatea izan zen Pirenaika arrazaren alde egitea, baina, denborarekin, arraza hau hobeto ezagutu ahala, gero eta



◀ Joakim eta Karmele anai-arrebak, behi eta txaha banarekin, Elizondon, ganaduaren desfilea egin ostean

"Sariak poza ematen dute, baina gu ez gaude horri begira; badira aurretik baloratu beharreko beste gauza batzuk: inork minik ez hartzea, ganadua joandako moduan etxeratzea..."

"Poza ematen du Pirenaika arrazaren berreskuratze prozesuan gure aletxeoa jartzen ari garela ikustea"

**JUAN JOSE
EGANA
DOLAETXE**

gusturago gaude bere egunean egindako hautuarekin, bertakoa den arraza baten berreskuratze prozesuko parte sentitzen garelako, hein batean".

Garai batean haragitarako zein esnetarako eta zamari gisa erabiltzen ziren behi piriniotarrak euskal baserrietan, baina mekanizazioaren etorrerarekin eta horrek ekarri zuen arrazen espezializatzearekin batera, ia desagertzeaz egon ziren piriniar behiak 1960-70 hamarkadetan. Zorionez, erakundeek emandako bultzadari eta azken hamarkada hauetan egindako hautaketa eta hobekuntza prozesuari esker, nabarmen aldatu dira Pirenaika arrazaren ezaugarriak; okelaren produkziara bideratu dira, eta gaur egun asko hedatzen ari da bai Euskal Herrian, eta baita Burgos, Kantabria, Aragoi eta Katalunian ere. "Behi-azienda ipini eta gutxira, 1993an, sartu ginen HEBEn (Herri Behi Elkartea), eta ordutik gaude Pirenaika arrazaren hobekuntza programan sartuta", dio Juan Josek.

HEBE da, Gipuzkoa mailan, piriniotar arrazaren hobekuntza genetikoaren koordinatzen duen elkarte, abelburu bakoitzaren liburu genealogikoen kontrola eramanez, errendimenduaren jarraipena eginez eta hazitarako idiskoaren hautaketa eginez, besteak beste. Dolaetxen ere hiru hilean behin egiten dute behien pisaketa, eta Zaragozako genetista bati igortzen dizkiote datuak. Euskadin, gaur egun,

piriniar arrazako 6.000 inguru behi-ama daude errolatuta.

Egun 25 bat buruk osatzen dute Dolaetxeko azienda; idiskoaz gain, hamar bat behi-ama, eta gainerakoak txahalak eta bigak. Harakai kooperatibarekin egiten dute lan.

SEKTOREA TRISTE

Pirenaika arraza nahiko sendo dagoen arren, abeltzainen sektorean ez omen dago poz handirik, Juan Josek dioskunez. "Okelaren prezioa pittin bat igo bada ere, gastuak askoz gehiago dira, eskakizun edo betebeharrak ere gero eta zorrotzagoak dira, eta marginak oso txikiak". Etorkizuna ez dute batere argi ikusten. "Erreleborako poz handirik ez dago. Orain arte formatu mistoak (enpresa eta baserria) asko tiratu du, baina hori ere gainbeheran da eta pentsatu egin beharko da zer gura dugun eta nola".

HERRI EGUNA

Herri Eguneko ganadu erakusketaz ere galdetu diogu Juan Josek, klasikoetako bat baita bertan. "Ahal izan dudan guztietan egon naiz bertan. Azken urteotan behien errepresentazio pobrea egon da. Behorrak ugaritu dira asko, eramateko samurragoak direlako, eta, beraz, bueltatxo bat eman beharko zaio; edo herriko abeltzainei laguntza gehiago emanez, edo bailarara pittin bat zabalduz, baina antolatzailleek erabaki beharko dute zer egin nahi den". ■



Landan Ekin SARIAK

» 2.500€-ko sei sari emango ditu Landaolak, landa eremuan ekintzailetasuna sustatzeko xedez

Lehen sektorean ekintzailetasuna, elkarlana eta ko-sorkuntza bultzatzeko helburua duen **Landan Ekin** egitasmoa aurkeztu du Landaola-k, Gipuzkoako Landa Garapen Elkartearen Federazioak.

Bi atal nagusitan banatzen da egitasmoa. Alde bate-tik, Landa-Ekintzaile sariak sortu dira. Sei atal nagusitan emango dira, eta bakoitzean **2.500 euro** emango zaizkio irabazleari. Hauek dira kategoriak: 1. Nekazaritza jardueren garapena; 2. Lehen sektorearen dibertsifikazioa; 3. Emakume ekintzaileak; 4. Gazte ekintzaileak; 5. Belau-naldi aldaketa; 6. Berrikuntza. Gainera, aurkeztu diren proiektuen artean lau aukeratuko dira 'La Caixa Rural Talent' izeneko 1.000 euroko saria eta 35 orduko formazioa jasoko dutenak.

Urriaren 11ra arteko epea dago proiektuak aurkezteko **landaola@landaola.eus** helbidean. Proiektuak baloratze orduan berritzailea izatea, teknologia berriak aplikatzea, enplegua sustatzea eta lankidetzazkoak izatea baloratuko da, besteak beste.

Landalur izaerako lursailak erosteko prozedura abian jarri du Udalak

2.000€/Ha.-ko gehieneko prezioa finkatu da. Urriaren 9ra arteko epea dago proposamenak aurkezteko

Udalak landalur izaerako lursail berriak eskuratu nahi ditu, baso eta ekosistemen kontserbazioa indartu eta bioaniztasunaren galera geldituko duten politikak sustatzeko asmoz, jasagarriak izan daitezkeen landaketa zein ustiaketa ereduak aplikatuz.

Asmo horrekin, landalur berriak eskuratzeko prozesua jarri du abian, eta 2023ko deialdi honetan lau eremu hauek kontsideratu dira interes-gune bezala: **1.** Hegazti nekrofagoen elikadurararako babes-eremuak; **2.** Aldakiño-Olapoto hiri-basoarekin muga egiten duten basoak; **3.** Legazpi-Antzuola-Bergara herrien arteko muga egiten duen mendilerroa; eta **4.** Erreken zaintza eremuak.

Aurkeztu diren lursailek gutxienez hektarea bateko azalera izan beharko dute, honako kasuetan izan ezik: lursaila jabetza erregistroan bereizitako finka bat izatea; Udalaren jabetzako lursail batekin mugakide izatea; proposatzen

diren beste lursailekin mugakide izatea eta guzti horien batura >1Ha izatea.

GEHIENEZKO PREZIOA

Eusko Jaurlaritzak nahiz Foru Aldundiak azkenaldian egindako tasazioak eta merkatuko prezioak kontuan hartuz, 2.000 €-ko prezioa finkatu da, gehienez, hektareako.

Aurkeztutako lursailen interesa ondorengo irizpideen arabera baloratuko da: prezioa (gehienez 40 puntu), lursailaren azalera (gehienez 30 puntu) eta udal jabegoko lursailekiko gertutasunaren (gehienez 30 puntu). Jasotako puntuazioaren arabera zerrenda osatuko da, deialdi honetarako udal aurrekontuetan dagoen aurrekontua (40.000€) agortu arte. Urriaren 9a da proposamenak aurkezteko azken eguna. Informazio gehiago ondorengo QRan.



JUANJE MARGOAK
627 818 247

 **ARKITEKTURA**

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



Udala, AFAGI eta Ganbara abesbatzako ordezkariak Estimulazio Kognitiboko tailerraren aurkezpen ekitaldian

Estimulazio Kognitiboko Tailerra

urriaren 3tik aurrera Oñatin, AFAGI eta Udalaren elkarlanari esker

Alzheimerra edo bestelako dementziaren bat hasierako fasean duten pertsoneri zuzendutako zerbitzua da.

Oñatiko udalak eta AFAGI-k (Alzheimerra edo beste dementziaren bat duten pertsonen eta senideen elkarte) sinatu duten lankidetzeta hitzarmenari esker, Estimulazio Kognitiboko Tailerra jarriko da martxan Oñatin, urriaren 3an.

Galera kognitibo arina duten pertsonen funtzio kognitiboak estimulatzea, eta ukituak edo galtzen hasiak dituzten funtzioak lantzea eta, ahal den neurrian, babestea da tailerraren helburua. Gaixotasunaren garapena moteltzea da, azken batean, xedea, gaixoen autonomia ahalik eta luzaroen mantendu eta beraien nahiz senideen bizi-kalitatea ahal den neurrian mantenduz.

ASTEAN BI SAIO
Estimulazio Kognitiboko

tailerra Euskaldun Barria gelan (Bidebarrieta kalea, 18) emango da, eta astean ordu eta erdiko bi saio izango dira, astearte eta ostegunetan, 11:00-12:30. Saio horietan hainbat ariketa egingo dituzte, funtzio kognitiboak (oroimena, lengoaia, arreta, orientazioa...) eta gaitasun funtzionalak lantzeko, baita harreman sozialak ere.

Gaixo bakoitzaren hurbileko jarraipena egingo dute AFAGIko langileek, eta pertsona bakoitzaren balorazioak egingo dira kurtso hasieran nahiz bukaeran, bere gaitasun eta funtzioen eboluzioa neurtzeko eta tailerrak onurarik egiten ote dion ikusteko.

Tailerrak 30€-ko kostua du, hileko.

INFORMAZIO BULEGOA

Estimulazio tailerraz gain, alzheimerra edo bestelako dementzien inguruko informazioa ere emango dute AFAGIko langileek Euskaldun Berria gelan, astearte eta ostegunetan (10:00-14:30). Aurrez hitzordua eskatzea komeni da 943297118 (AFAGI) zenbakira deituta.

Udalak eta AFAGI-k hiru urterako lankidetzeta hitzarmena sinatu dute.

Arlo honetan Oñatin zegoen hutsuneari erantzun nahi izan diotela adierazi du Iزارo Elorza alkateak. AFAGIko presidente Iñaki Olalderen ustez lehen mailako arazo sozio-sanitario baten aurrean gaude. "Alzheimerra eta halako gaitzak prozesu zailak izaten dira, laguntzarekin hobeto eramaten dira, eta gu laguntzeko gaude".

Ganbara Abesbatzak ere, bere Faktoria Soziala egitasmoaren baitan, bat egin zuen zerbitzu berri honen aurkezpenean, saioa borobilduz beren ahotsekin. ■

 ARRIZABALAGA Aroztegia	 PAKITA Altzariak
Berezaio Ind. 10 Tel. 943 78 14 64	Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21
SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK	

Garbigune Ibiltariaren erabilera okerraz ohartarazi du Mankomunitateak

Hondakinak nahastuta, gaizki bereizita eta modu zikinean uzten direla salatu du



Debagoieneko udalerrri guztietan bi astetik behin egoten den GARBIGUNE IBILTARI zerbitzuan erabilera okerrak antzeman ditu azkenaldian Mankomunitateak. "Zehazki, hondakinak guztiz nahastuta, gaizki bereizita eta oso modu zikinean lagata agertzen dira. Gainera, hondakin arriskutsu batzuk apurtuta agertzen dira (fluoreszenteak, adibidez, apurtzean barruko gas toxikoa askatzen baitute)", adierazi du bere oharrean.

Horregatik, Mankomunitateak dei egiten die Garbigune Ibiltaria erabiltzen duten herritarrei, hondakinak behar bezala bereizita eta modu garbi eta ordenatuan utz ditzaten eskatzeko.

Mankomunitateak 2013an jarri zuen martxan Garbigune Ibiltaria, eta Oñatira hamabostean behin etortzen da: hileko lehen ostegunetan azoka ondoan egoten da, eta hirugarren ostegunetan Olakuan, urmaelaren ondoan.

Zinegotzi lanak egoki bete ahal izateko baldintza duinak eskatu ditu EAJK

Bulego irisgarri bat eta aldi baterako aholkulari baten laguntza izatea eskatu dute jeltzaleek

Zinegotzi lana egoki bete eta herritarren interesak behar bezala ordezkatu ahal izateko baldintza duinak bermatzea eskatu dio EAJ-PNVren udal taldeak alkateari. Alde batetik, bulego irisgarri bat edukitzea eskatu dute jeltzaleek. "Azken 12 urteotan udaletxeko azken solairuan, eraikinaren teilatupean, irisgarria ez den eta herritarren eskura edo begi-bistan ez dagoen espazio txiki bat dugu, eta oñatiarren ordezkari gisa, zentzuzkoa deritzogu lanerako espazio egoki bat izateari, udaletxeko behe edo lehen solairuan", adierazi du Amaia Erostarbe bozeramaileak. "Arrasaten, Bergaran, Elgoibarren eta beste hainbat udaletan udal talde guztiek dute bulego propioa leku eroso, irisgarri eta ikusgarri batean".

BEHIN-BEHINEKO LANGILEA

Aholkulari lanak egingo dituen aldi baterako langile baten laguntza jaso ahal izatea ere eskatu du EAJK. EUDEL-en legeriaren arabera, udal talde guztiei aitortzen zaie eskubide hori, jeltzaleek adierazi dutenez. "Arrasateko udalean, adibidez, liberatutako zinegotzietz gain (EH Bilduko 5 eta EAJKo 1) alkateak behin-behineko langile bat (aholkularia) izendatu du EH Bilduren udal talderako, eskaera hori onartzea alkatetzari baitagokio zuzenean", azaldu du Erostarbek. "Oñatiko EAJren udal taldeak ez du inolako liberaziorik legegintzaldi honetarako, eta EH Bilduk Arrasateko udalean egin duen gauza bera eskatzen dugu, baina, oraingoz, ukatu egin zaigu".

BATZORDE KOPURUA MURRIZTU

Oñatiko udalean eratu diren lan-batzordeen kopurua murriztea proposatu du EAJK, 15 batzordetik 4ra (Antolaketa, Lurraldea, Herritarrak eta Ekonomia) pasatuz. "Eibar izan ezik, ez dugu horren informazio-batzorde kopuru handia duen herririk, eta kopuru hori eraginkortasunez lan egiteko kaltegarria dela deritzogu", adierazi du EAJK. Lan egitura sinplifikatuz, udaleko sailen eta arloen arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetzen lagunduko duela uste dute jeltzaleek, eta baita baliabideak optimizatzen eta administrazio prozedurak arintzen ere.

Eudel-eko Batzorde Eragileko bokal eta Gipuzkoako Lurralde Batzordeko kide izendatu dute Izaro Elorza



Irailaren 19an egin zen EU-DELEN (Euskadiko Udalen Elkarte) gobernu organo berriak eratu eta izendatzeko batzarra, eta ez zen izan ustekaberik, EH Bildu, EAJ eta PSE-EEko

ordezkariak biltzen zituen hautagaitza aurkeztu baitzen. Hala, Esther Apraiz jeltzalea, Derioko alkatea, izendatu zuten elkarteko buru 2023-2027 agintaldirako. Geure ordezkari dagokienez, Izaro Elorza Batzorde Eragileko kide izango da, bokal gisa, eta Gipuzkoako Lurralde Batzordean ere egongo da, aurreko agintaldian bezala.

Angel Mari Biainek zinegotzi akta jaso du



Irailaren 21eko osoko bilkuran hartu zuen zinegotzi kargua ofizialki Angel Mari Biain Zubiagirrek, "legeak behartuta zin egiten diot zinegotzi karguari" formula

erabiliz. Uztailean aurreratu genuen bezala, arrazoi pertsonalengatik kargua utzi beharra izan duen Jon Kepa Gerrikagotziaren lekua beteko du Biainek EAJ-PNVren udal taldean. Biainek 61 urte ditu eta Nekazaritzako Ingeniari teknikoa da. Landa Garapena eta Euskara-Hezkuntza batzordeetan parte hartuko du.

EROSKETA BONUEN kanpaina berria abian

- » Udalak **17.500** euro emango ditu bonotan
- » Urriaren 4tik azaroaren 30era eskuratu ahal izango dira bonuak, pertsonako 50€ gehiene

Diruz lagundutako erosketa bonuen kanpaina berria jarriko du abian Udalak hile honetan. Aurtengo bigarrena. Lehenengoa maiatzean izan zen, 15.000 euroko aurrekontuarekin, eta orain beste 15.000 euro ipiniko ditu herritarren eskura, erosketa bonuen bidez. Kopuru honi udaberriko kanpainan agortu gabeko 2.500 euro gehituko zaizkio.

Herritarrek **urriaren 4tik 30era** arteko epea izango dute erosketa bonuak eskuratzeko. Ohi bezala, bi modu egongo dira horretarako, *online* (*oñati.bonoak.eus* web aplikazioaren bidez) eta *offline* (kanpainara atxikitako saltokietan).

%20ko DESKONTUA

Pertsona bakoitzak gehienez 50€ eskuratu ahal izango ditu bonotan, eta erositako bonuei %20ko deskontua aplikatuko zaio; hau da, 50€-ko bono batek 40€-ko kostua izango du. Bonuak kontsumitzeko epea **abenduaren 7ra** arte luzatuko da.

Tokiko komertzio, ostatu eta zerbitzuetan kontsumitzearen garrantziak sentsibilizatzea eta kontsumo arduratsua sustatzea da kanpaina hauen helburua. Udaberriko kanpainan 1.361 herritarrek erosi zituzten bonuak eta 86.217€-ko salmentak sustatu ziren.



► **Oñati.bonoak.eus** web aplikazioan edo kanpainari atxikitako saltokietan eskuratu ahal izango dira bonuak

► **16 urtetik gorako** herritarrek soilik eskuratu ahal izango dituzte bonuak

Dendariei zuzendutako ikastaroa antolatu du Udalak, Merkatarien elkartearekin batera

'*Zure dendako online eta offline esperientzia konbinatzen ikasi*' da ikastaroaren izenburua, eta hauek dira jorratuko diren gaietako batzuk: online eta offline komunikabideak baliatzea zure bezeroaren esperientzia hobetzeko; norberaren marka-identitatea sare sozialetan eta saltokietan islatzea; bezeroaren leialtasuna lortzea, komunikazio digitala kontuan hartuta eta saltokiaren barruan; online eta offline estrategiak tratatzea eta konbinatzea.

Hogei orduko ikastaroa izango da, urriaren 9, 11, 16, 18, 23, 25, 30 eta 31n (13:45-16:15), Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, 18). Ikastaroa gazteleraz izango da. Informazioa eta izen-ematea: formacion@fmg.es / 688832620 / 943425557.

Gazte Ekoliderrak formazioan izena emateko aukera zabalik

Gazte Ekoliderrak, gazteak (20-35 urte) jasangarritasunean eta eraldaketarako lidergoan trebatzea helburu duen formakuntza eta bizitzarako ibilbidea da. Kutxa Fundazioak eta UPV/EHUko Udako Ikastaroak Fundazioak sustatzen dute egitasmo honek 6 hilabeteko (120 ordu) iraupena du eta 5 ezagutza bloketan antolatu da: 1. **Klima larrialdia**; 2. **Justizia soziala**; 3. **Kapitalismo berdea aztergai**; 4. **Biodibertsitatearen galera**; eta 5. **Ikusle edo eragile?**. Interesatuek urriaren 20ra arteko epea dute izena emateko: <https://kutxa.eus/eu/ekoliderrak>



Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiestui Kortabarria
Irakaslea
Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com
www.4sgoiena.com

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

IBAI-LAGUN

XI. JARDUNALDIAK / URRIAK 18-22

Udaleko Ingurumen sailak eta Natur Eskolak XI. IBAI-LAGUN jardunaldiak antolatu dituzte. Jardunaldion helburua da gure erreka-ibaien eta gordetzen duten bioaniztasunaren garrantzia ezagutzera ematea, eta hauen babesarekiko sentsibilizazioa herritarren artean piztea. Helburu horrekin hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen egunetarako.

DOKUMENTALA: 'Ni, Urumea'

URRIAK 18, asteazkena (19:00) kultur etxean.
Zuzendaria: Gaizka Aranguren



YOGA ERREKA ERTZEAN

URRIAK 19, osteguna (18:00) Usakon,
Miren Zubeldiaren eskutik.

HITZALDIA: 'Nueva cultura del agua y la fluviofelicidad'

URRIAK 20, ostirala (19:00) kultur etxean.
Francesc La Roca, ekonomialaria eta Universitat de Valènciako irakaslea.



ERREKA GARBIKETA

URRIAK 21, larunbata (10:00) plazan.



IRTEERA

URRIAK 22, igandea (11:00) Foruen enparantzan, **Arranoaitz** erreka lur azpittik.

Argazkiak: Natur Eskola



Errekatik ibiltzeko jantzi eta oinetako aproposak ekartzea gomendatzen da

TAILER ZIKKLOA



'Naturaren erritmoetara elikadura eta ongizatea zainduz'

URRIAK 7 / 11:00-13:30

Udako geldialdiaren ostean, jarrera emango zaio naturretaren erritmoak eta elikadura aintzat hartuz, gure ongizatea hobetzea helburu duen tailer zikloari.

Udazkenean murgildu garen honetan, naturak sasoi honetan eskaintzen dizkigun fruitu eta elikagaiez baliatzeko aukerak aztertuko dira bertan. Elikadura plana eta ordu-tarteetarako ideia praktikoak azalduko dituzte.

Horrez gain, gure gorputzak martxan jartzeko eta jarduera fisikoa egiteko naturak eskaintzen dituen aukera eta onurez ere jardungo dute: zein ariketa mota, zertarako, zenbat denbora, intentsitatea, oreka, flexibilitatea, postuak...

Urriaren 7an (11:00-13:30) izango da tailerra, Natur Eskolan. Izena emateko: 651701741 / 747405028 / info@amaianutri-zioa.com. Prezioa: 5€ (jasotako dirua dohaintzarako izango da).

ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerran izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72



JOSEBA ETA GOTZON ETXERA!

Ana M^a Markuleta eta Juanje Anduaga (SARE)

Honakoak dira Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako espetxeetan dauden Euskal Presoen kopuruak:

GUZTIRA: 166

- 141 gizonezko
- 25 emakumezko
 1. Euskal Herrian 152
(13 espetxealdi arinduan)
 2. Frantzian: 13
 3. Espainian: 1

Gaixotasun larriak dituzten presoak: 12+4
(identitatea ez da publikoa)

GRADUAK (EAE eta NAFARROAKO
espetxeetan)

- 2. Graduan: 128
- 3. Graduan: 24

Azken urteetan dispertsio politikarekin amaitzea lortu da, baina konponbiderako bidea luzea da oraindik, eta bide hau gauzatzeko oztopo asko ditugu gainditzeko.

Egin nahi dugun lehen erreferentzia, beharbada egungo egoeraren eragile nagusia, honakoa da: euskal presoen jurisdikzio-kontrola Madrilgo organo judizialen esku dago oraindik. Hau da, Ministerio Fiskala,

Espetxe Zaintzarako Epaitegiak eta Audientzia Nazionaleko Lehen Sala. Beti salatu dugun bezala, horiek salbuespenezko organo judizialak dira, 2003ra arte tokiko epaile naturalari edo berezko epaileari zegokion eskumena bereganatu baitituzte, hau da, EAEn edo Nafarroan dauden epaileei zegokiena.

Eusko Jaurlaritzaren jarduerari dagokionez, espetxe-eskumenaren ardura hartu ondorengo lehen 10 hilabeteetan, EAEko espetxeetako tratamendu batzordeek 25 proposamen egin zituzten 3. gradura iristeko, eta Justizia Sailburuordetzak onartu egin zituen.

Era berean, lehen 10 hilabete horietan, aurrerapen txiki bat egin zen 48 orditik beherako baimen-proposamenetan.

Gainera, azken hilabeteetan, 3. gradurako beste 8 progresio-proposamen daude, Tratamendu Batzarrek onartuak eta Eusko Jaurlaritzak berresteko.

Horiek dira Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzaren jarrerari buruzko datuak. Datu positiboak dira, baina espetxe-politika arrunta aplikatzearen balizko emaitzatik oso urrun daude oraindik, betetze-denboragatik erdi-askatasunean edo baldintzapeko askatasunean egon beharko lukete euskal preso gehienek. Saretik, 115 preso inguru izango lirakekeela kalkulatu genuen.

Gaur egun bi Euskal Preso politiko oñatiar ditugu, biak egoera oso larrian. (→)

Azaleko argazkiak: Azpeltiako Tren Museoa



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



JOSEBA ARREGI

Josebak 77 urte ditu, eta horietatik 31 espetxean preso eman ditu (28 urte luzez dispertsio zein espetxe politika bortitzak jasanda).

Gaur egun Martuteneko espetxean dago preso, eta 2 gradu erregresio izan ditu; hau da, 2 aldiz eman diote 3. gradua eta ostean kendu. Egoera larria da duen adinarengatik, eta kontutan hartzekoa da hainbeste urteko espetxeratzearen ondorioz dituen multipatologiengatik kalean beharko lukeela. Halaber, 2019ko ekainean Espainiako zigorraren hiru laurden beteta zituen, eta honen aurretik Frantzia preso egondako 10 urteak zenbatu izan balitzaizkio, badira urte batzuk kalean aske egon beharko zukeela.

Euskal Presoen inguruan hitz egiten dugunean, pertsonen ari gara. Bi hamarkada luzez espetxeratuta egon ondoren, euskal espetxeetara baldintza onartezinetan iritsi diren pertsonen, giza eskubideen kontrako baldintzetan biziraun dutenak: etxetik ehunka edo milaka kilometrora urrundu zituzten, zigor gehienak lehen graduan bete dituzte, isolamendu moduluetan askotan, espetxeko jardueretan parte hartzeko eskubiderik gabe, mediku arta duinik jaso gabe.... Birgizarteratze-prozesuak hainbat hamarkadatan egon dira blokeatuta, eta, beraz, eskatzen ari garena ez da mesede-tratua, ez eta pribilegio-tratua ere. EZ. Salbuespenen amaiera eskatzen dugu. SAREn uste dugu egoera normalizatzeko prozesu bati ekitea beharrezkoa dela, erabakitazunez, gaur egungo testuingurura egokitutakoa, gertatutako guztia ahaztu gabe, baina neurri egokiak hartuz, gainditutako faseak min handiagorik eragin ez dezan.

Horretarako, honako hauek jotzen ditugu ezinbestekotzat:

Duela 20 urte sortu zuten salbuespenezko legeria indargabetzea. Edo, aldaketa partzialen bidez behintzat, gaur egungo egoera berrira egokitzea. Edo, lege horiek egungo testuinguru kontuan hartuta interpretatzea. "Etxera" esaten dugunean, euskal presoek etxera itzultzeko bidea hasteko aukera izan behar dutela aldarrikatzen dugu.

JOSEBA ETA GOTZON ETXERA!
ETXEAN ETA BIZIRIK NAHI ETA BEHAR DITUGU!
EUSKAL PRESOK ETXERA!



GOTZON TELLERIA

Gotzonek 67 urte bete berri ditu, eta 2017an atxilotu zuten Mexikon, egun gutxi batzuk falta zirela 30 urteko preskripzioa gauzatzeko (eta 30 urte baino gehiago erbestera joan zenetik).

Gaur egun Gotzon Nanclares de Ocaño espetxean dago, eta bere egoera oso larria da, sendaezina den gaixotasuna garatu duelako, ELA gaixotasuna hain zuzen ere, alboko esklerosi amiotrofikoa. Zoritxarrez, heriotzara eramaten zaituen gaixotasun sendaezina. Gotzon larriki gaixo dago, eta, gainera, preso. Gaixotasuna areagotzea besterik ez dio ekarriko kartzelan jarraitzeak, egun bizi dugun osasun egoeraren ondorioz, eta, bereziki, kartzelan dauden osasun-baldintza kaxkarrak aintzat hartuz gero. Arrazoi horrengatik kalean egon beharko luke.

OHAR eta DEIALDIAK

ZAPOREAK-en ALDEKO JANARI BILKETA

Hotz-Oñatik antolatuta, Zaporeak GKE-ak Lesbosen duen lankidetzaren proiektura bideratzeko janari bilketa egingo da urriaren 5, 6 eta 7an. Lekaleak, pasta, arroza, arrain-, barazki- eta lekale-kontserbak, olioak eta barra energetikoak behar dira. Txerrikirik ez. Eroski Center, Eroski City, Errekaldeko Denda, Super BM eta San Migel Kooperatibaren egingo da bilketa.

1982KO KINTTUEN BAZKARIA

1962ko azaro-abenduan edo 1963an jaiotakoak. Oñatin jaiotakoak, bizitakoak edo bizi direnak.

Azaroaren 11n egingo dute kinttadia, bazkari batekin Etxe Aundin. Aurrekontua: 60€ (menua, musika, etab.). Egitaraua eta xehetasun gehiago apuntatutakoan whatsapp taldean.

Izena emateko: 10€ko BIZUM-a 606 666 963 zenbakira, izen-abizenak jarritz, urriaren 15a baino lehen.

 **Catalana Occidente**

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



Gure ekintzen berri emango duen atala...

ERASMUS + ELKARTRUKA: IBARRA - BEDIZZOLE (ITALIA) - OÑATI

2022ko irailean eman genion hasiera Erasmus + proiektuari Oñatiko Gaztelekuan. Hasiera batetik, proiektuarekiko interesak, Oñati eta Ibarra-ko Gaztelekuek proiektua elkarturik egitera eramanez gintuen. Labur esanda, Erasmus+ 2021-2027 epealdirako Europar Batasuneko programa da eta bertan, erakunde eta gazte talde informalek eraturako herrialde ezberdinetako gazteekin hezkuntza ez formaletik garatzen diren proiektuak gauzatzen dira. Besteak beste honakoak dira Erasmus + programarekin bete nahi diren helburuak:

- Ikaskuntza, kulturarteko elkarriketa eta europarra izatearen sentimendua bultzatzea
- Gazteen gaitasunak eta jarrerak garatzea
- Europar baloreak indartu eta aurreiritziak eta estereotipoak eraistea
- Gizarte arloko gai nagusien inguruan kontzientzia garatzea eta gizartearekiko zein parte-hartzearekiko konpromisoa sustatzea

Barneratzen dituen ekintzen baitan gazte elkartrukeen proiektuak daude eta bertan hartu dugu parte guk, Batxilergo 2. mailako gazte talde batekin. Gure bi herrientzako (Ibarra-Oñati) inoiz egin gabeko zerbait izan da hau, eta bidea egiten joan garen heinean, proiektua ezagutzen eta prozesuan zehar egin beharrekoak ikasten joan gara.

Elkarlan honek nora eramango gintuen oso ondo jakin gabe, bi herrietako gazteen harremana sustatze aldera, hainbat topaketa burutu genituen bai Oñatin eta baita Ibarra-ko ere, Ibarra-ko adin berdineko beste talde batekin. Behin elkar ezagutu ostean, proiektua sortzeari ekin genion. Topaketa hauek aprobetxatu genituen horretarako, proiektuko helburuak zehaztu genituen eta baita proiektuaren gaia ere: kultur-artekotasuna. Hauek dira zehaztu genituen helburuak:



- Norberaren kultura ezagutzea eta onartzea.
- Beste eredu kultural batzuk daudela ohartu eta ez epaitzea.
- Norberaren kulturaren ezagutzan sakontzea.
- Kultur horizontea zabaltzea (beste kultura batzuk identifikatzeko irizpide gehiago izanda).
- Besteen kulturekiko ulermena eta errespetua garatzea, estereotipoak hautsiz.
- Norberaren kultura-aukerak zabaltzea.
- Harreman konstruktiboak eta interaktiboak izatea kultur ingurune arrotz batean: kulturen arteko gatazkak maneiatzea eta besteen kultura-estandar hautatuak onartzea.

Behin hori eginda, elkartrukea gauzatzeko hirugarren herri bat aurkitzeko, Ibarra-koekin batera landuta genuen proiektua Erasmus+en plataforman eskegi genuen eta bertatik, Europar zeharreko elkarte desberdinen proposamenak jaso genituen. Jasotako proposamenak aztertuta, gure proiektuaren helburuekin bat egiten zuen elkarterik aproposena aukeratu genuen elkartrukeerako, eta horrela iritsi ginen Bedizzoleko Arcus elkartearengana.



Ordutik, elkartrukearen prestaketetan buru belarri aritu gara italiarrek, elkar adostuta Cultural Shake deitu dugun proiektuan. Gauzak horrela, proiektuaren azken xehetasunak lotu eta italiarrek elkartrukean murgiltzeko txanda iritsiko zaigu orain. Gipuzkoan gauzatzeko dugun elkartrukea, urriaren 10-15 bitartean izango da eta Zarauzko aterpetxea izango dugu ostaturtat. Bitarte horretan, Oñatiko Larraña etxearekin, Ndank Ndank elkartearekin, Zaporeak elkartearekin eta beste hainbat erakunderekin lanean arituko gara. Italiako elkartrukea, berriz, abenduak 2-7 bitartean izango da eta Bedizzolera joango gara, eta han, bertan helburu berdinarekin dauden hainbat proiektu ezagutzeko aukera izango dugu.

Azaroko grebak martxan darrai

Azaroaren 30ean greba feminista orokorra egingo da Euskal Herrian, zaintzaren problematika agendaren erdigunean jartzeko. Oñatin ere talde bat martxan dago auzia landu eta greba eguna antolatzeko

Euskal Herriko Mugimendu Feministak deituta, azaroaren 30ean greba feminista orokorra egingo da zaintzaren auzia sozializatzeko asmoz Euskal Herriko txoko guztiak **astinduko** dituen.

Greba lanuztea da, lan ez egitea, baina denok ez dugu greba egiteko eskubiderik: lan batzuk ezin baitira egiteari utzi. "Kontraesan" hau ere bada greba honen helburuetako bat: zaintzen ezinbestekotasuna agerian jarri eta nork eta zein baldintzatan zaintzen duen azalertzeko.

Azaroko greba feminista izango da, sistema kapitalista, heteropatriarkal, kolonialista eta arrazista salatuko baitugu, pribatizazioaren arduradunak interpelatu eta seinalatuz. Geroz eta feminizatuago eta arrazializatuago dagoen zaintza sistema jo puntuan jartzeak sistema osoa inpugnatzeko potentzialtasuna duelako.

Zer aldarrikatzen da?

Hamaika dira epe motz eta luzean markatzen diren aldarrikapen zehatzak, hiru multzo nagusitan bildu daitezkeenak: zaintza lanak kolektibizatzea, zaintza-lanaren balioa handitzea eta profesionalizatzea eta beste zaintza-kultura bat eraikitzea.

Horrela, besteak beste, eskari zehatzetako batzuk ondorengoak izango liriteke: sistema publikoan pertsona eta baliabide gehiago inbertitzea, langile-ratioak handitzea, zaintzaile guztiak erregularizatzea, etxeko enplegua erregimen orokorrean sartzea, guztientzako pentsio duinak bermatzea, "dena maitasunaren truke" ideia desmuntatzea, zaintzeko denborak aztertzea (baimenak, lanaldiak...).


Eta Oñatin, zer?

Zaintzaren problematika landu eta greba eguna antolatzeko, aurreko ikasturtetik herriko talde bat martxan dago, eta bilera informatiboak antolatu ditu: urriaren 17an, asteartea, 18:30etan eta urriaren 22an, igandea, 17:00etan, Eltzia topagunean. Herritar guztiak gonbidatuta daude bertara. Zaintzaren afera guztion ardura delako.

✉ Bizitzak Erdigunean Oñatin



BILERA INFORMATIBOAK
EGINGO DIRA: **URRIAREN
17AN** (ASTEARTEA, 18:30)
ETA **URRIAREN 22AN**
(IGANDEA, 17:00), ELTZIAKO
TOPAGUNEAN. HERRITAR
GUZTIAK GONBIDATUTA
DAUDE BERTARA.
ZAINZAREN AFERA
GUZTION ARDURA DELAKO




COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPECIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

☎ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP

✉ OINATI@COINBROKER.EUS



Sexu aholkularitza zerbitzua berrikuntzekin dator

Bikoiztu egin dira arreta orduak eta **Xirrika** zerbitzuak egoitza berria du

Udalak eskaintzen duen sexu aholkularitza zerbitzuak berrikuntzekin hasiko du ikasturtea. Alde batetik, bikoiztu egin ditu arreta orduak. Hala, aurrerantzean ostiraletan arratsalde osoan eskainiko da zerbitzua Gaztelekuan, eta helduentzako **Xirrika** zerbitzua ostegunetan izango da. Orain arte, ostiral arratsaldetan eskaintzen zen guztia, baina motz geratzen zen, eta eskaintza bikoiztea erabaki da.

Gainera, **Xirrika** espazioak egoitza edo kokaleku berria izango du, Atzeko Kale eta Ramon Irizar kaleen arteko parkean egongo da, (ikus argazkia).

Zer da sexu aholkularitza zerbitzua?

Herriko haur, gazte eta helduei zuzendutako zerbitzua da; sexualitatea eta harreman afektibo-sexualen inguruko kezka eta zalantzak lantzeko konfidantzazko espazio bat eskaintzen du, bi gunetan bananduta: **Xirrika** espazioa eta **Gaztelekuko sexu aholkularitza** gunea.



Ramon Irizarreko parkeko lokal honetan egongo da aurrerantzean XIRRIKA zerbitzua

XIRRIKA ESPAZIOA: 16 urtetik gorako norbanako, bikote eta familiei zuzendutako zerbitzua da. Gorputza, desira, sexualitatea eta harreman afektibo-sexualen inguruko arreta eskaintzen da, norbanakoei zuzenduta, eta baita guraso edo familiei ere.

• **Saio presentzialak:** Ostegunetan 17:00etatik 19:00etara (Txanda aurrez hartu behar da, txantxiku.sexuaholkularitza@gmail.com helbidera idatzita).

• **On-line kontsultak:** txantxiku.sexuaholkularitza@gmail.com

GAZTELEKUKO SEXU AHOLKULARITZA ZERBITZUA

Estigmak, tabuak eta beldurrak uxatuz, harreman aske eta osasuntsuak sustatu eta norbere gorputzarekiko harreman positiboa lantzen dira, adinaren arabera egokitutako arreta zerbitzu honetan. Banaka, bikoteka edo talde txikitan egiten dira saioak.

• **KONTSULTA PRESENTZIALAK:** Ostiraletan, 17:30etatik 20:00etara gaztelekuko lehenengo solairuan

• **ON-LINE KONTSULTAK:** txantxiku.sexuaholkularitza@gmail.com

MINDFULNESS ETA ERLAXAZIOA

Tailer zikloa dohainik Oñatin, Iturrigorri Elkarlan-ek eta Udalak antolatuta



- **EGUNAK:** Urriak 24 eta 31. Azaroak 7, 14, 21 eta 28
- **ORDUA:** 18:30-20:00
- **TOKIA:** Euskaldun Berria gela (Bidebarrieta kalea, 18)
- **IZEN-EMATEA:** 687 752 842 maribelpachecos@gmail.com

Iturrigorri Elkarlan elkarteak, Oñatiko udalarekin lankidetzan, mindfulness eta erlaxazio tekniketarako sakontzeko tailer zikloa (6 saio) eskainiko du Oñatin, dohainik. Normalean lehentasuna ematen diogu gure gorputza zaintzeari, alderdi emozionala (pentsamenduak, sentimenduak, emozioak...) gerorako utziz. Baina garbi dago, emozionalki ondo ez bagaude, gure eguneroko bizitza eta pertsonen arteko harremanak okertu egiten direla. Horregatik, buru-osasuna gero eta gorago dago pertsona askoren kezka iturrien zerrendan. Tabuak alde batera utzi eta gero eta normaltasun handiagoz berba egiten dugu buru-ossunaz. Eguneroko errutinari, estresari eta bizi dugun testuinguru ezegonkorrari aurre egiteko soluzioak eta erremintak behar ditugu, eta horregatik jotzen du jende askok **mindfulness** eta **erlaxazio** tekniketara.

ZERGATIK DA ONURAGARRIA TEKNIKA HAUEK LANTZEA?

Mindfulness-ak laguntzen digu gauzak argiago ikusten, gure erreakzio negatiboak kontrolatzen, eta eraginkorrak izaten egoera bakoitzaren aurrean. Gure emozioak erregulatzen laguntzen digu, gure buruarekin eta besteekin hobeto sentitzen eta, azken finean, gure gorputz eta buru-osasuna hobetzen. Erlaxazioaren bidez tentsioak arintzea lortzen dugu. Deskonektatzen eta kontzentrazioa hobetzen laguntzen digu. Hitz batean esanda, mindfulness eta erlaxazio tekniken bidez lortzen dugu buruak ez gaitzala dominatu, eta zoriotsuago izaten laguntzen digute.

'EZ GALDU AUKERA. HARTU ZURE OSASUNAREN GIDARITZA'

Bueltan da Mikopoteo jardunaldia

Azaroaren 4an hamargarren ekitaldia hartuko du Arantzazuk. Perretxiko jangarriak eta antzekoak diren pozoitsuak bereizten ikasteko hitzaldia emango du Raul Frailek, eta ondoren mikopoteoa egingo da Arantzazuko ostatueta



Pandemia urteek eragindako etenaren ostean, bueltan da Arantzazuko Mikopoteo jardunaldia, mikologia eta gastronomia zaleek maite eta biziki estimatzen duten ekitaldia. Azaroaren 4an izango da aurtengoa, hamargarrena, Arantzazuko Adiskideen Elkarteak, Arantzazulab-ek eta Arantzazuko Parketxeak antolatuta.

HITZALDIA

Perretxikoak gure basoetako altxor preziatuak dira, duten garrantzia biologikoagatik ez ezik, gozamen hutsa direlako gure mahai gainean. Baina kontuz, tartean badirelako pozoitsuak eta hilgarriak izan daitezkeenak ere. Horregatik, aurtengo jardunaldiari hasiera emateko, perretxiko jangarriak eta horien antzekoak diren pozoitsuak desberdintzeko gakoei buruzko hitzaldia emango du Raul Fraile mikologo adituak Gandiaga Topagunean, 18:00etan.



1,5€ balioko du mikopintxo bakoitzak

MIKOPOTEOA

Hitzaldia amaituta, 19:15ak aldera, mikopoteoa hasiko da, Zelai Zabal ostatuan abiatu eta Arantzazuko Santutegia Hotelean, Goiko Bentan eta Sindikan jarraituz. Mikopintxo bakoitzak 1,5€ balioko

du, eta edaria ostatu bakoitzaren prezioen araberakoa izango da. Herritar guztiak daude gonbidatuta aisia, kultura, natura eta gastronomia uztartzen dituen ekintza honetan parte hartzera.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com

Muestra-txakurren lehiaketak

instintuaren aurkako lehia

Lau txapelketa irabazi ditu aurten Aitor Aizpuruak, eta Espainikoan ere izan da



Hegaztia non dagoen markatu eta geldí-geldi egon behar izaten du txakurrak

Ehiza denboraldi batetik besterako tartean Muestra- edo Erakus-Txakurren lehiaketak jokatu ohi dira Euskal Herriko txoko ezberdinetan, gehienak Bizkaian, eta gutxixeago Gipuzkoan eta Araban, Euskadiko Ehiza Federazioak ezartzen dituen arauen arabera betiere.

Martxo-apirilean hasi eta iraila bitartean hamaika lehiaketa jokatu dira aurten, eta horietatik hiru irabazi ditu Aitor Aizpuruak, Ispasterren, Mungian eta Zornotzan. Bigarren eta hirugarren postuak ere lortu ditu eta, gainera, Espainiako txapelketan parte hartzeko hautatua izan da aurrenekoz.

Instintuaren aurkako lehia izaten dela esan dugu izenburuan, izan ere, txapelketa hauetan txakurrak ezin du hegaztia harrapatzera joan, bere senak, irrikak edo berezko joerak agintzen dion moduan; hegaztia begiz jotzen duenean ehiztariari markatu egin behar dio hura non dagoen eta geldí-geldi egon behar izaten du harik eta tiroa jo arte.

HERIOTZARIK GABE

Tiroa airera botatzen du ehiztariak, ehizakia uxatzeko. Ez da hegaztirik hiltzen txapelketa hauetan. Bilatze lana eta, batez

ere, txakurraren lana egiteko modua eta ezaugarriak puntuatzen dira: ehizarako grina, erresistentzia, bilaketa-metodoa, abiadura eta, bereziki, arraza bakoitzaren estandarraren berezko estiloa. Markatutako hegazti kopurua baino, kalitatea saritzen da.

Setter eta *Pointer* arrazako txakurrekin aritzen da Aitor. *Sei de Iparragirre* eta *Ori de Iparragirre* txakurrekin —bere baserriaren izena da Iparragirre— irabazi ditu aurten txapelketak, baina *Mangosto de Pasarin* izeneko pointerra omen da egun daukan txakurrik onena. Berarekin sailkatu da Espainiako txapelketara, nahiz eta ez duen zorte onik izan. "Estatu mailan dagoen txakurrik onenetakoa izango da", dio Aitorrek. "Puntuak egiten badu, hau da, hegaztia markatzen badu, ez dauka areriorik. Hain da dotorea mugimenduetan! Baina oso bizia da, eta batzuetan zaila da kontrolatzea. Europako txapelketarako sailkatze probatan parte hartzeko aukera ere eskaini dit Espainiako federazioak, baina ezin izan dut, lanagatik". Estaltze naturalak egiteko ere hainbat lekutatik eskatu izan diote txakurra. Egun hamaika txakur ditu Aitorrek, eta erakusketak egiteko ere deitzen diote toki ezberdinetatik. Aurten Cervera de Pisuergan, Uzkiñon eta Potesen egon da, besteak beste.



PILOTA June-Oihane eta Biain-Barrenarentzat txapelak



Irailaren 23an jokatu ziren Herriko Pilota Txapelketako finalak, plazako frontoia lepo beteta zegoela, giro ederrean. Emakumezkoen finalean June eta Oihane nagusitu ziren 22-17 Aran eta Joneren aurka. Gizonetzkoen finalean ere emaitza bera izan genuen Biain-Barrenaren alde, Amilleta eta Enekoren aurka. Festa borobiltzeko Mikel Goñi ikusketako aukera izan zuten frontoian bildutako zaleek. Erle oñatiarrarekin osatu zuen bikotea eta 18-22 galdu zuten Urmeneta-Urruzolaren aurka.

MENDI IRTEERA (urriak 15) / OÑATIKO MUGARRIAK

Arantzazu-Artaso-Artia-Sekillaga-Aumategi-Degurixa-Araotz

Oñatiko mugarren erreposoan azkenaurreko ibilbidea. Arantzazutik aterako gara, errepara jaitsiz. Etengabe igotzen hasiko gara, Artasotik, goiko lepora iritsi arte. Behin mugan, Urkilla mendilerrotik jarraituko dugu San Millan, Barrundia eta Aretxabaletako mugak zeharkatuz. Aumategitik Degurixara jeitsiko gara eta handik Araotzera. (Luzera, 18km / 7 ordu inguru / +1000m). Irteera, goizeko 8tan Postetxe parean. Izena emateko epea: Urriak 12, Aloñako tabernan edo *alonamendi.mendi@gmail.com* helbidean. Bazkideak 10€. Federatuta egon behar da.



Sekillaga, 1152m



ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA

Fidel Alonso eta 'Lis' txakurra nagusi

Fidel Alonso, Aretako (Araba) artzaina eta Gorbeia arrazako 'Lis' txakurra nagusitu dira Oñatiko 63. Nazioarteko Artzain Txakur Lehiaketan. Pozik zen Alonso, aspalditik zeukan arantzaxoa ateratzea lortu duelako, izan ere 2007ko edizioan Oñatiko txapel preziatua lortzetik puntu bakarrera geratu baitzen. 'Lis'-ek ondo baino hobeto bete zuen lana, eta 18 hilabete besterik ez dituela kontuan hartuz, zeresana emango du hurrengo urteetan ere. Euskal Herriko, Bartzelonako, Castelloko, Gironako eta Akitaniako 13 txakurrek parte hartu dute aurten. Migel Arregi oñatiarrak —Gipuzkoako txapelduna— ez zuen egun ona izan eta ez zen bigarren ariketara pasa.



BOLA-JOKOA Iñaxio Gereta irabazle

Giro ederra izan da aurten ere Kurtze Baltz elkarteak antolatutako herriko bola-joko txapelketan. Laurogeitik gora partaide eta guztien artean Iñaxio Gereta irabazle, 5 txirilo botata. Iñigo Larrea, Iñigo Arregi, Aitor Otxoa eta Gorka Perosterena sailkatu ziren ondoren, 4rekin. Aurretik izan ohi den subastako tiraldian ere Gereta nagusitu zen, 6rekin.



Lagunek agur beroa eskaini zioten Unai Cuevari



TXIRRINDULARITZA

Unai Cuevaren agurra

Afizionatu mailan hiru denboraldi osatu ostean, lehiaketak uztea erabaki du Unai Cuevak. Oñatikoa izan zen azken lasterketa, eta agur beroa eskaini zioten zaleek eta bereziki etxekoek eta lagunak. Julen Arriolabengoak lortu zuen garai-pena. Azpimarratzekoa Aimar Erosarbak —lehen oñatiarra— egin-dako lana, ihes eginda joan baitzen ia azkenerrate. Danel Casaisentzat izan zen tarteko helmugan saria.



World Series-eko finalean egongo da Malen Osa

Estatu Batuetan ibili da Malen Osa (Salomon) mendi-korrikalari oñatiarra. Coloradoko Plkes Pike lasterketan 4. sailkatu zen, eta Kalliforniako Mammoth Trail-en 5. Aurretik, Dolomitetan ere sartu zen aurreneko bos-tan artean, eta horri esker urriaren 19-20an Italian jokatu den Golden Trail World Series-eko final handirako sailkatu da.

Udaleko kultura sailaren ikastaroak

Pintura, Eskulan Dekoratiiboak eta Zeramika tailerrak jarriko dira martxan, nagusi eta gaztetxoentzat. **Urriaren 18ra** arteko epea dago izena emateko.

Herriko jaiak atzean utzita, 2023/2024 ikasturterako antolatu dituen aisialdiko ikastaroetan izena emateko deialdia egin du udaleko kultura sailak. Aurten, berritasun moduan, **buztingintza** ikastaroa egongo da aukeren artean berriz ere, sei urteren ostean, June Larzabal eskoriatzarrak gidatuta. Nagusien eta gaztetxoentzako taldeak eratuko dira

Berritasunekin jarraituz, **eskulan dekoratiibo**en tailerra orain arte nagusiei zuzenduta egon da, baina, aurten, lehen aldiz, gaztetxoei ere eskainiko zaie.

Pintura ikastaroetan ez dago aldaketarik. Nagusien eta gaztetxoentzako taldeak osatuko dira, eta Gurutze Mujika (nagusiak) eta Mayra Jimenez (gaztetxoak) izango dira irakasleak. Aurten ez da joskintza tailerrik egongo.

IZEN-EMATEA

Ikastaro-tailer hauetakoren batean parte hartu nahi dutenek **urriaren 5etik 18ra** eman behar dute izena, **www.oñati.eus** webgunean dagoen formularioa betez, edo kultur etxean bertan (astelehenetik ostiralera (10:00-13:00 / 16:30-20:30).

Urriaren 25ean, arratsaldean, onartuen zerrenda argitaratuko da kultur etxeko harreraren eta udalaren webgunean. Eskainitako plazak baino izen-emate gehiago dauden ikastaroetan zozketa bidez egingo da aukeraketa. Azaroaren 2an hasiko da ikasturtea.

Helduek 83,32€ ordaindu beharko dute eta adingabeek 61€. Tasak ordaintzetik salbuetsita egoteko, baldintza hauek bete behar dira: Oñatin erroldatuta egotea gutxienez iazko urtarrilaren 1etik, langabezian egotea (agiri ofiziala aurkeztu behar da), eta langabeziko prestazio ekonomikorik ez jasotzea edo agortuta izatea.



BERRITASUNAK

Zeramika tailerra egongo da berriz ere, **6 urteren ostean, eta Eskulan Dekoratiiboetan gaztetxoentzako (8-12 urte) taldea ere egongo da**

IKASTAROAK

TALDEAK ETA ORDUTEGIAK

PINTURA

► **NAGUSIAK (+18 urte)** (irakaslea: Gurutze Mujika). Astelehen eta astearteak, 16:00-18:00 / 18:00-20:00

► **HAUR ETA GAZTEAK** (irakaslea Mayra Jiménez)

• **6-8 urte** (LH-1, 2 eta 3) Ostegunak, 17:00-18:30 / Ostiralak, 17:00-18:30

• **9-13 urte** (LH-4, 5, 6 eta DBH-1, 2) Ostegunak, 18:30-20:00 / Ostiralak, 18:30-20:00

• **14-18 urte** (DBH-3, 4 eta Batxi 1, 2) Ostiralak, 15:30-17:00

ESKULAN DEKORATIIBOAK

► **NAGUSIAK (+18 urte)** (irakaslea: Jasone Agirre) Astearteak, 15:00-17:00 / 18:00-20:00

► **GAZTETXOAK (8-12 urte)** (irakaslea: Jasone Agirre). Asteazkenak, 17:00-18:15 / 18:30-19:45

ZERAMIKA

► **NAGUSIAK (+18 urte)** (irakaslea: June Larzabal). Astelehenak, 11:00-13:00 / 15:30-17:30

► **GAZTETXOAK (9-13 urte)** (irakaslea: June Larzabal). Astelehenak, 18:00-20:00

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40



Jendeak nahi badu, Oñatiko buztina batu, garbitu eta lantzeko aukera ere egongo da



ZERAMIKA (nagusi eta gazteentzat)

Irakaslea: June Larzabal

Zeramika dugu ikasturte honetan berritasun nagusia, kultur etxeak antolatzen dituen ikastaroei dagokienez. Azken sei urteetan ezin izan da zeramika tailerrik antolatu, irakaslerik ez ez zegoelako, baina aurten aukeren artean egongo da berriz ere.

June Larzabal eskoriatzarra izango da irakaslea. Diseinuko gradua ikasi du Junek EHUUn, eta zeramikako masterra ere egina du. Elosuko Euskal Buztingintzako Museoa eman izan ditu gaztetxo eta familiei zuzendutako zeramika tailerrak, baina Oñatiko izango da, nagusiei zuzenduta emango duen iraupen luzeko aurrenekoa, eta ilusio handiarekin dagoela esan digu.

Hasiberriekin buztina lantzeko oinarrizko teknika (txurroarena...) eta sekretuak landuko ditu eta pieza samurrak egiten hasiko dira: platerak, kizarak, kutxak... Dena den, aurretik buztinarekin ibilitako jendea baldin badago taldean, tornua erabiltzeko eta figura zailagoak egiteko (pitxerrak, lorontziak...) aukera ere egongo da.

Buztinari forma emateaz gain, labean sartu eta esmalteak erabiliz kolorea eman eta dekoratzen ere ikasiko dute. Gainera, taldekideek nahi badute, Oñatiko buztina batu eta lantzeko saioen bat ere egin daitekeela aurreratu digu. "Graduaren amaierako lanean tokiko buztinak landu nituen, eta Oñatin ere jaso izan dut. Beraz, jendea animatzen bada, polita izan liteke bertako buztina jaso, garbitu eta berarekin zerbait egitea".

Nagusiei nahiz gazteei (9-13) zuzendutako taldeak egongo dira. Bi orduko saioak izango dira, astero (ikusitako ezkerreko orrian). Junek animatu egin nahi ditu herritarrek buztingintza tailerlean parte hartzera. "Artearekiko sentsibilitatea duen edonor gonbidatuko nuke. Buztina lantzen ari zarenean kontzentratuta egoten zara eta, egia esan, erlaxatzeko aktibitate egokia da".

ESKULAN DEKORATIBOAK (nagusi eta gazteentzat)

Irakaslea: Jasone Agirre

Eskulan DekoratiBoen ikastaroan bada berritasunik aurten, nagusien taldeaz gain gaztetxoena (8-12 urte) ere osatuko baita aurreneko aldiz. Jasone Agirre izango da irakaslea, batean zein bestean.

Hogeita hamar urtetik gora daramatza Jasonek era honetako tailerrak ematen, eta berak azaldu digu zer egiten duten eskulan dekoratiBoetan. "Objektu ezberdinak dekoratzen ditugu: lata edo poteak, platerak, altzariak, poltsak... Berdin da zein materialekoak diren; izan daiteke egurra, kristala, tela, plastikoa, burdina, aluminioa.... Lehen, eskuz margotzen genuen eta trebetasun handiagoa behar zen, baina gaur egun teknika ezberdinak (plantillak, laminak, seiluak...) erabiltzen ditugu objektuak dekoratzeko, eta errazagoa da; edozeinek egin dezake eta oso gauza politak ateratzen dira.

Horregatik, aurten gaztetxoekin proba egitea pentsatu dugu. Oso entretenituta egoten dira, irudimena eta sormena lantzen dute eta, gainera, autoestimua indartzeko ere baliagarria da, oso gauza politak eramaten dituztelako etxera".

Gaztetxoak ez ezik, nagusiak ere animatu nahi ditu Jasonek. "Erlaxatzeko ondo etortzen da. Taldegiro polita izaten dugu, elkarren artean ideia berriak sortzen dira eta jendea harrিতa geratzen da zein gauza politak egiteko gai diren ikusten dutenean".



Aurten, lehen aldiz, gaztetxoena (8-12 urte) taldea ere egongo da



Eskulan dekoratiBoetan egiten diren lan mota ezberdinen adibideak

PINTURA (nagusiak)

Irakaslea: Gurutze Mujika



Gurutze Mujika atxabaltarra izango da nagusien pintura taldeko irakaslea. 2021eko urtarrilean hartu zuen Luis Laskurainen erreleboa eta, orduz geroztik, berak gidatzen du helduen margo taldea. Bi talde osatuko dira eta bi orduko bina saio izango dituzte. (Ikusi egunak eta orduak 30. orrian).

Ez omen da aparteko dohainik behar pintatzeko eta, beraz, gogoia duen edonor animatzen du izena ematera. "Adin eta maila ezberdineko jendea egoten da eta lan pertsonalizatua egiten dugu, bakoitzaren interes eta mailaren arabera. Hasieran zaila ematen du, baina poliki poliki ikasi egiten da", dio Gurutzek.

"Marrazketaren oinarriko teknika lantzen dugu hasiberriekin. Koadro bat margotzen nondik eta nola hasten den ere ikasten dugu, eta hortik aurrera bakoitza bere margolanak egiten hasten da. Normalean olio-pinturak erabiltzen ditugu. Irailean erakusketa egiten dugu kultur etxean, eta Gabonak aldera herriko eskaparateetan ere erakutsi izan ditugu gure lanak. Tarteka, erakusketaren bat ikustera ateratzen gara, eta, inoiz, margolaria gonbidatu izan dugu bere pintatzeko prozesua azaltzera. Oso aberasgarria izaten da".

PINTURA (haur eta gazteak)

Irakaslea: Mayra Jiménez



Mayra Jimenez bergararrak gidatuko du aurten ere haur eta gazteei zuzendutako pintura ikastaroa. Duela hamar bat urte hasi zen gazteei marrazten irakasten. Hasieran bi talderekin, baina gaztetxoek erantzuna ikusita, poliki poliki taldeak gehituz joan behar izan dute, eta hasi berri dugun ikasturte honetan ere bost talde osatzeko asmoa dago: **6-8** urtekoenak bi, **9-13** urtekoenak beste bi, eta **14-18** urte artekoena bat. (Ikusi egunak eta orduak 30. orrian).

"Kurtso hasieran marrazketa lantzen dugu, arkatzarekin. Koloreen nahasketa eta konposizioa ere jorrazten dugu, eta Gabonetatik aurrera koadroak margotzen hasten dira. Eredu ezberdinak erakusten dizkiet, eta beraien gustukoak aukeratzen dituzte. Normalean pintura akrilikoa erabiltzen dugu, baina akuarela ere probatzen dugu", azaldu digu Mayrak.

Ez omen da dohain berezirik behar pintura ikastaroetan parte hartzeko. "Hasieran zaila ikusten dute, baina, poliki poliki, koadro bat margotzeko gai direla ikusten dute eta hori oso garrantzitsua da beraien autoestimua indartzeko. Oso giro polita egoten da, gustura egoten dira eta gauza asko ikasten dituzte. Beraz, animatu egiten ditut izena ematera".

Urriaren 8ra arte
Kultur Etxean
daude ikusgai pintura
taldeetako ikasleek
iaz egindako
hainbat margolan

XANTI UGARTE IRABAZLE XIX. MARGO LEHIAKETAN



Xanti Ugarte Mugarzak irabazi du Oñatiko XIX. Ageriko Margo Lehiaketa pintura akrilikoz egindako margolan ederrari esker. Kale Zaharra atzealdeko pasealekua ikusten da bertan. Denera, 10 lagunek parte hartu zuten eta Jose Reyesek eta Javier Igoak osatu zuten 'podiuma'. Oñatiar onenaren saria Eñaut Uribesalgok jaso zuen. Gaztetxoek artean Xan Urteaga, Bernat Gonzalez eta Leire Manrique izan ziren sarituak. Kultur etxean daude ikusgai lanak urriaren 8ra arte.



LIBURUTEGIEN EGUNA ospatzeko egitarau zabala

Helduentzako **ipuin** kontaketa (**Azerbaijango** istorioak) eta haurrentzako **poesia** emanaldia antolatu dituzte, besteak beste

AZERBAIJANGO IPUINAK

Liburutegien Nazioarteko Eguna-ren harira Udal Liburutegiak antolatu dituen ekitaldien artean, helduei zuzendutako ipuin kontaketa azpimarratu behar dugu. **Urriaren 27an** izango da, zine aretoan (18:30). Tarana Karim azerbaijandarrak txikitan entzun eta ikasitako ipuin herrikoak kontatuko ditu.




HAURRENTZAKO POESIA

Urriaren 27an haurrei (4-6 urte) zuzendutako saioa (Haur poesia-rekin jolasean) egongo da Haur Liburutegian (18:30), Xabier Olasok gidatuta. *Pupuan trapua* eta *Tximeletrak* liburuak abiapuntu hartuta, ibilbide poetiko bat osatuko dute: deklamazio dramatikoak, instrumentuak, kexak, musika... Gonbidapenak urriaren 16tik aurrera eska daitezke.



LIBURUTEGIRA BISITA

Urriaren 23 eta 24an, goizez, 4 urteko haurrentzako bisitak egingo dira liburutegian, Lur Korta ipuin kontalariak gidatuta. Horrez gain, **Idazketa lantegia** (urriak 16), **Komikia euskaraz** (urriak 17), **Terulixan gazteleraz** (urriak 24), eta **Tertulixan euskaraz** taldeak (urriak 31) jarriko dira martxan.



Urriaren 24an
ospatzen da
Liburutegien
Nazioarteko Eguna

'Komunitateak ehuntzen'

'Komunitateak ehuntzen' da aurtengo Liburutegien Eguna ospatzeko aukeratutako leloa, eta gure komunitateetan lotura sendoak eraikitzeko liburutegiek duten funtsezko zeregina azpimarratu nahi da.

Liburutegi bat ez da soilik liburuz betetako eraikin bat; bihotz taupadatsuak dira gure komunitateetan, topaketa- eta elkarrizketaguneak dira. Eta Liburutegien Eguna horixe jarri nahi du balioan, alegia, liburutegiek egiten duten lana beren erabiltzaileak konektatzeko, laguntza- eta lankidetzaren sareak sortzeko, herritarren parte-hartzea eta elkarrizketa sustatzeko, eta kultura eta ezagutza herritar guztien eskura jartzeko, edozein dela adina, generoa, arraza edo bizilekua.

Liburutegiek gure ulermen kolektiboari forma ematen diote, ideia ezberdinen trukea errazten dute eta hazkunde pertsonal eta kolektiboarako espazio segurua eskaintzen dute. Bisita bakoitzak, irakurketa bakoitzak, elkarrizketa bakoitzak, berebiziko garrantzia du komunitatea sortzeko. Truke eta konexio horien bidez, gure desberdintasunak eta antzekotasunak elkartu egiten dira, gure komunitateen aniztasuna eta aberastasuna erakutsiz.

Udal Liburutegia

Oñati Abesbatzak Talavera de la Reina abestuko du



Urriaren 20tik 22ra Oñati Abesbatzako kideak Talavera de la Reina (Toledo) joango dira bertako *Quadrivium* abesbatzakoekin kontzertu bat ematera. Ekitaldi hori pasa den maiatzaren 13an Oñatiko Agustindarren elizan antolatu zenaren jarraipena da. Izan ere, horrela gauzatuko da *Quadrivium* eta Oñati Abesbatzakoaren artean antolatutako elkartrukea. Nuria Jimenezek eta Mirengu Plazaolak zuzenduko duten kontzertu horretan, besteak beste, MAITIA NUN ZIRA, KANTAURI, IPHARADISI, FREEDOM IS COMING edota EL ABANICO abestiak kantatuko ditugu.

HERRITARREI IREKITAKO ENTSEGUA, URRIAREN 18an

Kontzertu horren atarian, urriaren 18an, arratsaldeko 19:30ean, Oñatiko unibertsitateko kaperan, ATE IREKIEN jardunaldia eskainiko du Oñati Abesbatzak eta entsegu orokor gisa planteatzen duen ekitaldi horretara herritar guztiak gonbidatu nahi ditu.

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



EKITALDI BEREZIAK

URRIAK 28 / Egun osoan

ELTZIA EGUNA

Eltzia-ko instalazioak eta bertako jarduna ezagutzeko aukera. [Eltzian](#)

AZAROAK 4 / 18:00

MIKOPOTEOA

Mikologiari buruzko hitzaldia Gandiaga Topagunean, eta ondoren mikopoteoa Arantzazuko ostatuetan. [Arantzazun](#)

ERAKUSKETA

URRIAREN 8ra ARTE / 18:00-20:00

PINTURA ERAKUSKETA

Margo lehiaketara aurkeztutako eta pintura tailerretako ikasleek egindako lanak ikusgai [Kultur etxean](#)

KONTZERTUAK

URRIAK 15 / 12:30

IKER MARTINEZ ETA ZALDI HERRENAK

Gaztelekuko *Matinée* kontzertuei hasiera emanez. Sarrera 6€ [Gaztelekuan](#)

URRIAK 18 / 19:30

OÑATI ABESBATZA

Oñati Abesbatzaren saioa herritarrei irekia. [Unibertsitateko kaperan](#).

URRIAK 18 / 20:00

MAURE

Pop-Folk elektronikoa, [Eltziako Topalekuan](#).

URRIAK 21 / 19:00

MADDI ARLANZON + AITOR REGUEIRO

Burrunda Faktoriaren aurkezpen ekitaldiaren baitan [Antixena gaztetxean](#).

LITERATURA

URRIAK 27 / 18:30



ANTZERKIA

URRIAK 29 /

'ANBOTOKO MARI'

3-10 urte arteko haurrei zuzendutako ikuskizuna, Logela Multimedia taldearen eskutik, udaleko Kultura sailak antolatuta. Antzerkida, bideo-animazioa, interakzioa eta musika biltzen dituen ikuskizun multimedia. [Santa Ana antzokian](#).

AZERBAIJANGO IPUINAK

Helduentzako ipuin kontaketa saioa [Kultur etxeko zinean](#)

URRIAK 27 / 18:30

HAUR POESIAREKIN JOLASEAN

4-6 urteko haurrentzako saioa, Xabier Olasoren eskutik [Haur liburutegian](#).

TAILERRAK

URRIAK 7 / 11:00-13:30

NATURAREN ERRITMOETARA ELIKADURA ETA ONGIZATEA ZAINDUZ

Naturaren erritmoak aintzat hartuz, gure ongizate maila hobetzera zuzendutako



IPIIN MUSIKATUAK

URRIAK 29 / 12:30

SORGINAK ETA SORGINKERIAK

Toti Martinez de Lezea, idazlea, Gorka Hermosa, akordeoilaria, eta Edurne Zabalo, klarinestistaren saioa. Pentsarazi egingo digun ikuskizun hunkigarria. Totiren hitzak hegan joango dira musikaren gainetik. Sarrera: 8€. [Gaztelekuan](#).

tailerra. [Natur Eskolan](#)

URRIAK 21 / 10:00-14:00

KONSTELAZIO FAMILIARRAK

Familia Konstelazioen inguruko tailerra M^a Luisa de Dios adituak gidatuta, Eltziako 'Artez Hazten' aretoan. Erreserbatu plaza: 628212839. [Eltzian](#)

ZINEA

AZAROAK 4

LABURMETRAI RALLYA

Oñatiko Laburmetrai Rallya azaroaren 4an izango da aurten. Informazioa <https://olrallya.wixsite.com/olrallya>

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

BURRUNDA FAKTORIA

kultur elkartearen
aurkezpen-ekitaldia

URRIAK 21 / Gaztetxean (19:00)

Herriko zenbait musikazalek sortu duten *Burrunda Faktoria* elkartearen aurkezpen ekitaldia egingo da urriaren 21ean, zapa-tua, Antixena gaztetxean (19:00). Elkartearen eta lehen denboraldirako prestatu duten egitarauaren berri emango dute bertan eta, ondoren, **Maddi Arlanzon** eta **Aitor Regueiro** musikariek emanaldi bana eskainiko dute. Luntx txiki bat ere egingo da.



Hileko gomendioa

Sare sozialetan egunero aurkitzen ditugu manipulatutako irudiak eta bideoak, konspirazioaren teoriak, deepfakeak eta botsak. Zer dira? Nork sortzen ditu? Eta, batez ere, zein helbururekin? Informazioa egiaztatzen ikasteko, eskuliburu entretzenigarria.

AQUATRaining SAIOAK

Kiroldegian egingo dira, astearte eta ostegunetan, 19:15-20:15. Igeri egiten dakien jendeari zuzendutako saioak dira. Entrenamenduen bitartez, igeri estilo ezberdinak landuz, sasoi fisikoa hobetzea da helburua. Izen-emateak: 943716375.

IGERIKETAKO ATE IREKIAK

Urriaren 9 eta 10ean egingo dira igeriketa jarduera ezberdinak probatzeko: **Aquagym**, **Igeriketa terapeutikoa**, **Matro Igeriketa** eta **Ur Fitness**. Ikusi ordutegiak: <https://www.oñati.eus/ate-irekiak>

ZINEA



ORDUTEGIA

Zine-kluba: Osteguna (20:00)
Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (22:00), igandea (19:30 eta 22:00) eta astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Urriak 5 - 9


ZINE KLUBA:

- NAGUSIAK:

Todos los nombres de Dios

GAZTETXOAK:

El colegio de los animales mágicos-2: El origen



Urriak 13 - 16

ZINE KLUBA:

- NAGUSIAK:

La voz del sol

GAZTETXOAK:

Abentura erraldoia



Urriak 19 - 23

ZINE KLUBA:

El retorno de las golondrinas

NAGUSIAK:

Cerrar los ojos

GAZTETXOAK:

Richard la cigüeña y la joya perdida



Urriak 26 - 30

ZINE KLUBA:

Una vida no tan simple

NAGUSIAK:

Sound of freedom

GAZTETXOAK: La patrulla canina: la super película



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16

URRIAK 9, 10, 12, 18, 19, 27, 28 eta 29. AZAROAK 6 eta 7.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22

URRIAK 1, 2, 3, 11, 20, 21, 22, 30 eta 31. AZAROKAK 8 eta 9.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58

URRIAK 4, 5, 13, 14, 15, 23 eta 24. AZAROAK 2.

IULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28

URRIAK 6, 7, 8, 16, 17, 25 eta 26. AZAROAK 1, 3, 4, eta 5.



MERKATU TXIKIA

GARAIEA SALGAI

Olakua 1C-ko sotoan. 15,67m²-ko azalera eta ganbara. Deitu: 607 315 994

PARTIKULARRAK

Lehen Hezkuntzako haurrei klase partikularrak emateko prest dagoen neska. Magisteritza ikasita, hezkuntza berezian espezializatua. Deitu: 600 348 713.

ETXEBIZITZA

ikusgarria salgai Bakardadeko Ama kalean, 82m², kapritxora jarrita, bizitzera sartzeko, 298.000 euro. Deitu: 655720404.

ODOL ATERALDIA

URRIAK 6 / 16:30-20:30 MU-ko

Enpresagintza fakultatean. Hitzordua hartzeko, deitu: **943007884**

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati



(*) Itten: arrastua, pistia

>> URRUSOLAKO KONTUAK (I)

Elizako pontia eta kuadruak

Urrusula auzuak joku eta aposten gaiñian tradiziño luzia izan dau; izan be, bizi guztian era askotako trabesak egin dira auzotarren artian: karta- eta bolo-jokuak jaiero; antxintxika-karrerak, oiñez edo bizikletan, sarrittan; eta, berezi samarrak, noizian behin.

Orainguan auzuan zeresan haundixa emun eben kontu bat kontauko dogu. Urte batian Urrusulako jaixetan, Andramarixetan, etxekuen eta konbidauen artian, mahaikadia eguen baserri baten bazkaritten, eta han egozela jentiak puska bat eran ebenian, elizaren pontiaren kontuak urten eben. Izan be, 1960ko hamarkadan, auzo-eskolia egin zanian, obra haundixak egin ziran, orduko herriko alkatiak eta San Migel parrokixako abadiak zuzenduta. Eta sasue hartan han ponte bat eguen, haundixa gaiñera, Oñatiko parrokixan daguena baiño txikitxuagua, baiña ederra! Eta obria egin ondoren ponte ha ezkutau egin zan auzoko iñor enterau barik.

Ba, egun hartan, bazkarixa akabo eta gizonak puska bat eranda, pontiaren kontua etara, eta pontia harrapau eueilla baietz eta ezetz hasi ziran. Eta horren gaiñian apostia egin euen, dirua jarritta. Orduan, kontu hori argittu barik ezin zala geldittu eta auzoko bi andra abadiarengana fan ziran asunto hori argiketara. Esan otsain pontiaren kontura apostia egin zala, eta berarekin argittu gura eueilla zer pasau zan harekin. Abadiak, barrez-barrez, 'zuek periodistetarako balixo dozue' esanaz bialdu zittuen. Eurak be hala moduzko barretxo bat egin eta besteriko barik urten euen abadetxetik ezer argittu barik.

Obran ibillittako hargiñarekin amistade haundixa ekuaiñez, harengana be jo euen eta harek esan osten ponte haren billa ez ibiltteko, berak baekixela nun eguen, baiña ezin zeikiela esan. Auzotarren ustez, parrokixako klaustruan egon zan. Gaur egun egon leike San Telmon edo alkate harek bere egunian eruateko esan eben lekuren baten. Eta, normala dan moduan, auzuak gurako leke jakin ponte ha nora fan zan.

Auzoko gizonak, apostia egin zanian, esaten euen herriko alkatiak eta "auzoko jauntxuak" beste iñorekin kontau barik ponte eder ha eruan eueilla. Aittatu dogun moduan, elizan obra haundixak egin ziranian, jatorrizko pontia eruan eta haren ordeze beste txiki bat jarri zan, horretarako permisua aurrian ebiltzein jauntxuak emunda, eta ez auzoko jentiak. Hori orduko apostian etzan argittu eta orainddiok be argittu barik dago.

Bestetik, elizan kuadro ederrak be baegozen, balore haundikuak, eta 'iñork ezteixen ostu' eruan egin zittuain Bidaurretara, eta han edota Amarako elizan dagozela pentsaitten dau Urrusulako jentiak.

Urrusulako parrokixa-elizatik eruandako pieza eder horreik danak nun ete dagoz? Egunen batian bertara bueltauko ahal dira!



San Migel parrokixako pontia

Oñatin erosiz, herria biz!



Txanda Elkarte

“Jaixen ondorian
eztauezer.”
Bada aldaketa(ra)ko garaixa.

#konpromisua
#bokaziñua
#pasiñua
#kalidadia
#sormena
#gertutasuna
#alkarlana
#ugarittasuna
#famelixia
#jasangarritasuna
#egokitzapena
#erantzukizuna

Urriak 28, 13:30ian, Oñatiko plazan.

www.txanda.eus



TERMINO, MENDAKERITZA
ETA KERTUBAKO OASIA



elkarrekin bidea eginez

ULMA, 2023KO OÑATIKO MENDI
MARTXAREN BABESLE NAGUSIA

*Eskerrik asko
parte hartu duzuen guztioi!*

